



# ARGIA



EMAKUMEEN ARRAUNA

## **Argaltzeko presioak zamatuta**

24-29. orrialdeak

#2846 | 2023 / 11 / 12 | 4,00 €



**“Gay kolektiboetan  
ere misoginia  
ikusi dugu”**

14 | OSKAR SADA



**Lau eguneko  
lan astearen  
hobekuntzak, agerian**

30 | EKONOMIA



**Liburuen aztarna  
ekologikoa  
murriztu nahian**

33 | EKOEDIZIOA

# HAUSNARREAN

*Ardiek egin naute artzain*

Josebe Blancoren liburua

## Aurkezpen hitzaldiak

### Azaroa:

07 / Antzuola. Olanan, 18:30

16 / Urruña. Arotzenea, 18:30

21 / Arrasate. Ereindajan, 18:00

22 / Lazkao. Biziola, 19:00

23 / Azpeitia. Elikagunea, 18:00

24 / Aniz. Elkartea, 19:00

### Abendua:

01 / Derio. Marikobaso, 19:00

07 / Durangoko Azoka. 19:00

13 / Gasteiz. 19:00

15 / Larzabale. Ezpeletenea, 19:30

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi baduzu,  
idatzi: [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)



Liburu berria

Prezioa **22 €**

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

## Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

## Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


### 33 | EKOEDIZIOA, LIBURUEK SORTZEN DUTEN KUTSADURA MURRIZTEKO

Irati Irazustak azaldu du zer den ekoedizioa, eta nola sortu duten duela urtebete berau egiaztatzeko Institutua eta zigilua Katalunian. ARGIA bertako bazkide egin da eta iraila honetan ekin dio bere argitalpenak ekoedizioan egiteari. Ez dago kutsatzen ez duen libururik, baina murriztu dezakegu eragina.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Emakumeak hondamendi naturaletako lehen kaltetuak

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | OSKAR SADA

### “Oso interesgarria da heteroekin aliantzak egitea”

Reyes Ilintxeta

24 | KIROLA | EMAKUMEEN ARRAUNA

### Pisuaren presioak uzten duen ubera luzea

Leire Artola

30 | EKONOMIA | LAU EGUNEKO LAN ASTEA

### Badaude motiboak, baina enpresariak ez dute nahi

Gorka Peñagarikano

36 | HEZKUNTZA

### Komunera joateko gogoia ongi kudeatzen da zuen eskolan?

Mikel Garcia

44 | KULTURA

### Familia baten erbestea eta herrimina, miangolarratarren historia ahaztua argitara

Miel Anjel Elustondo


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaiz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,  
Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:


## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitara  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da  
testuentzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

# Ezpataren sastada

Azaroaren 4a zetorrela-eta bi euskaltzale hizketan: "Zer, autobusa antolatuko dugu?" "Guk bai, baina ondoko herrietakoek ez omen dute antolatu behar, giroa hotz dago. Miren Seguiolak esaten du UEMAKo udalek orain ezpata pixka bat gertuago dutela, baina ez dakit nik herritarrek horretaz jabetu diren". Autobusak antolatu eta denak bete ziren. Euskaltzaleek sentitu dute ezpata zintzurrian. 70.000 herritar kalean, aspaldiko partez.

ARITZ LOIOLA / FOKU ONINTZA IRURETA AZKUNE





# Gaza ez, baina gasa bai

**AXIER LOPEZ**

**A**ire zabaleko munduko kartzelarik handiena izateari utzi dio Gazak. Orain 2,3 milioi pertsonen kontzentrazio-, sarraski- eta bortxazko desplazamendu-eremua da. Ia zuzenean ikusten ari gara genozidio bat, Mendebaldeko potentzia nagusien oniritziarekin. Baina hain agerikoa izanik, zergatik egiten dute? Hori da sarri errepikatutako galdera azken asteotan. Sionismoaren barrenean dauden helburu kolonial eta izaera arrazistatik harago, ba al da halako sarraski krudel bat egitera eraman ahal zaituen interes indartsurik? Erantzun posible bat ondo baino hobeto ezagutzen dugu, azken hamarkadetakoa inbasio eta eraso inperialista gehienetan agertu baita: energia baliabideak. Eta Palestinaren kasuan, gasaz ari gara.

Munduko negozio errentagarrienetako bat, armen, pertsonen eta drogen trafikoarekin batera, energia fosilen ustiatetak izaten jarraitzen du. Eta haren gorpila ezin da gelditu, ezta eraso militar betean egonik ere. Horren froga izan dugu urriaren 30: Israelek 12 lizentzia banatu dizkie sei enpresari gas naturalaren bila esploratzeko. Leviatan izeneko gas-hobi erraldoiaren ondoko bi eremu esploratuko dituzte. Munduko ur sakonetako gas aurkikuntza handienetakoa bat da Leviatan, 2010ean topatu zuten Haifatik 130 kilometrotara dagoen 87.000 kilometro koadroko "altxorra".

"Enpresa irabazleek konpromisoa hartu dute gas naturalaren esplorazioan aurrekaririk gabeko inbertsioak egiteko datozen hiru urteetan, gas naturalaren erreserba berriak aurkitzeko itxaropenarekin", adierazi du erakunde sionistak Energia ministro Israel Katzek. Bi partzuergotan banatu dituzte enpresa irabazleak. Talde bat Eni erraldoi italiarrak, Dana Petroleum eskoziarrak eta Ratio Energies israeldarrak osatuko dute, eta bestea BP ingelesak, Azerbaijan Petrol Enpresa Publikoak (SOCAR) eta NewMed Energy israeldarrak. Helburu nagusiak, Israelen mendekotasun energetikoa konpontzea eta Europaren hornidura bermatzea.



Itsasoko gasa ustiatzeko eskubidearen alde Gazako palestinarrek egindako manifestazio bat 2022an.

Ameriketako Estatu Batuetako Geologia Zerbitzuak 1.700 milioi petrolio upel berreskuragarri eta 122 bilioi oin kubiko gas aurreikusi ditu Siria, Libano eta Palestina Historikoaren itsasoa eta kostaldearen gehiengoa hartzen duen eremuan –Levant Basin probintzia deituan–. Baliabide horien balio garbia 453.000 milioi dolarrekoa da gas naturalari dagokionez eta 71.000 milioi dolarrekoa petrolioarena. Hau da, 524.000 milioi dolarreko dirutza. Gasari dagokionez, Leviatan eremua da aurkikuntzarik handiena, eta zenbait kalkuluren arabera, Israelen barne-eskaria ase lezake hurrengo 40 urteetako.

## EBASKETA KOLONIALA

Baina baliabide eta dirutza hori bereganatzeko Israelek ez du "legezko eskubide eskusiborik", NBek 2019an argitaratutako txosten baten arabera. Zergatik? Oso logika errazagatik: baliabide fosil horiek osatzeko milioika urte behar izan ziren. Palestinarrak beren lurretan mende askotatik hona bizi dira. Israel, ordea, duela 75 urte jaio zen, eta potentzia okupatzaile

gisa eratu zen. Orduan, norena da baliabide horiek ustiatzeko eskubidea? Gaur egun, zoritxarrez, erantzuna agerikoa da: Israel, okupazio bortitzaren bitartez eta bere bi sustatzaile eta gas erosle nagusien baldintzarik gabeko laguntzaren bidez, AEB eta Europar Batasuna.

Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik, gas errusiarrak ordezkatzeko beste iturri batzuk lortzeko presiopean, Europar Batasunak "Elkar Ulertzeko Memoranduma" sinatu zuen 2022ko ekainean erakunde sionistarekin, Leviatango aztarnategitik gasa inportatzeko. Ameriketako Estatu Batuak harago joan dira, eta Israelekin "lankidetzaren energetikorako" akordioa sinatu zuten. Akordio horren arabera, "Israelek baliabide naturalak ustiatzeak interes estrategikoa" du AEBentzat, eta trukean Israeli "eskualeko segurtasun kontuetan" lagunduko diola azpimarratu dute. Gas naturala "eskualeko segurtasunean eragin positiboa" duen baliabidetzat jo dute. Alegia, geopolitikara ekarrita, Ekialde Hurbileko herrialde arabiarrekin merkataritza-zubiak eraikitzea esan nahi du.

GNL gasa (gas natural likidotua) "trantsizio energetikorako erregai" gisa saldu dute multinazionalak eta Mendebaldeko zenbait gobernuak. Ikuspegi logistikotik konplexua eta ingurumenarentzat kaltegarria izanik ere, ikatzak baino %40 karbono dioxido gutxiago isurtzen duela azpimarratzen dute haren defendatzaileek. Haien kalkuluen arabera, erreserbak daude "125 urtez mundua hornitzeko". Iran, Errusia eta Qatar erreserba horien erdiaren jabe dira.


Amerikako Estatu Batuak GNL ekoizle eta esportatzaile handiena da munduan gaur egun, eta gas garesti horren aldeko apustu argia egiten du. Europa, 2022an, munduko inportatzaile nagusi bihurtu zen: urte horretan kontsumitu zuen gasaren %40 mota horretakoa izan zen, gehiena izoztuta ekartzen dute itsasontziz.

## EKIALDEKO MEDITERRANEOKO GASAREN IBILBIDEA

Ekialdeko Mediterraneoko gas-hodiaren (EastMed Pipeline) proiektuak Europako gas-hornitzaileak dibertsifikatzea eta Europar Batasunatik kanpoko herrialdeen mende ez egotea du helburu. Israel izango da kanpoko partaidetza bakarra eta gasbidea handik abiatuko da. Grezia Ekialdeko Mediterraneorekin lotuko du, eta Greziatik, Poseidon gasbidearekin elkartuta, Italiarekin egingo du lotura. Gasbide horretatik Leviatan eta Zipreko Afrodita eremuetatik ateratako gasa garraiatuko dute nagusiki

Turkia proiektu horren aurka agertu da, gasbidea ez litzatekeelako bere kostaldetik eta uretatik igaroko, eta Europaren hornitzaileak are gehiago dibertsifikatuko litzuzkeelako. Horrek talka egiten du Errusia zein Turkiaren interesekin, Transanatoliar gasbidearen bidez (TANAP) azerbaijandar gasa garraiatzen baitute Europara. Horrela agian hobeto ulertzen da Turkia izatea Israelen genozidioa zorrotzen eta gordinen gaitzetsi duen herrialdeetako bat.

Proiektu horren atzean, Ekialdeko Mediterraneoko Gasaren Foroa (EMGF) dago. 2019an sortu zen Egipton, eta 2020an, Kairon egoitza duen nazioarteko gobernuarteko erakunde bihurtu zen. Zipre, Egipto, Frantzia, Grezia, Italia, Jordania, Israel eta, bitxia bada ere, Al-Fatah alderdiak kontrolatutako Palestinako Aginte Nazionala (PAN) dira erakundeko kideak. Bitxia diogu, Palestinatik bertatik handik ateratzeko



Ekialdeko Mediterraneoko gas-hodiaren bitartez Israelek ustiatutako gasa eroan nahi dute Europara.

eskatu dutelako. BDS mugimenduaren Palestinako Batzorde Nazionalak EMGF uzteko eskatu zuen PANi 2021ean, erakunde horretan parte hartzeak "Israelen Mediterraneoko Itsasoko kostaldean gas naturala lapurtzeko zilegitasuna ematen diolako".

Israelek azken urteotan herrialde arabiarretara egindako hurbilketa nagusietako bat izan da EMGF. Haren ostean, Abrahameko Akordioak etorri ziren. Arabiar Emirerri Batuen, Bahrainen, Sudanen, Marokoren eta Israelen arteko akordioak dira, AEBek sustatu eta babestutakoak, nola ez. Hitzarmen horiek diote Palestinan "bakea" lortu nahi dutela, baina, beste behin ere, palestinarrek kontuan hartu gabe. Israeli pribilegioak emateaz gain, beste herrialde arabiarrekiko loturak sortu edo sendotzen ditu. Saudi Arabia eskualdeko potentzia gisa bultzatzen du eta, hartara, Iran isolatu. Are gehiago, Saudi Arabiaren diktaduraren eta estatu sionistaren arteko sintonia horren lehen pausoaren ostean, aldebiko akordio bat prestatzeari ekin zioten. Oraindik gauzatu ez dena, eta sarraskiaren ostean zalantzatan geratu dena. Izan ere, Israelek beren interesen zerbitzura zenbait herrialde arabiar gerturatu izana, ziurrenik, erresistentzia palestinarren urriaren 7ko eraso egiteko arrazoietako bat izan zen, normalizazio-joera hori hausteko.

## AURREKARIA: GAZAKO GASAREN LAPURRETA

1999an, BG Group (BGG) petrolio multinazional britainiarrak gas hobi handi

bat aurkitu zuen Gazako kostaldetik 17 eta 21 itsas milia ingurura. Palestinak eta Israelek 1995ean sinatutako Oslo II akordioaren arabera, Gazako kostaldetik 20 itsas milia arteko jurisdikzioa Palestinarena da. 1999ko azaroan, Palestinako Aginte Nazionalak 25 urteko kontratua sinatu zuen BGGrekin gasa esploratzeko. Erreserba erraldoi horiek, bilioi bat oin kubikotan estimatuak, palestinarren eskaria estaltzeaz gain esportazioa ahalbidetuko lukete. Ehud Barakek, orduan Israelgo lehen ministroa zenak, baimena eman zion BGGri 2000ko uztailan lehen putzua zuzaltzeko. Palestina eta Israel negoziatzen aritu ziren, baina 2003an lehen ministro Ariel Sharonen jarrera aldatu zuen esanez gasaren etekinak "terrorismo palestinarra" laguntzeko erabil zitezkeela. Israelek Osloko akordioak urratu dituen kasu ugarietako bat izan zen. Hainbat aldaketa, hautsitako akordio eta presio diplomatikoren ondoren, 2008ko abenduan Israelek Gaza inbaditu zuen eta palestinarren gas eremu horiek Israelen kontrolpean jarri zituen, nazioarteko zuzenbideari muzin eginda.

Orduetik, BGG multinazionala Israelgo Gobernuarekin negoziatzen eta elkarlanean aritu da. Palestinarrek milaka milioi dolarreko galerak izan dituztela kalkulatu ditu Nazio Batuen Erakundeak.

Energetikoa da Israelek duen beste arrazoi bat Palestinako herria mapatik desagerrarazi edo Egiptora eta Jordaniara ihesarazi ditzaten, etxeak eta lurrez gain, gasa ere atzean utzita. ●

# Ukrainako guda, amaierara hurbiltzen?


**LANDER ARBELAITZ MITXELENA**

**A**EBetako NBC hedabideak azaroaren 3an argitaratu du AEBetako eta Europako ofizialek bake negoziazioen gaiari eutsi diotela Ukrainarekin. Aste berean *Time* aldizkariak Ukrainako presidente Zelensky elkarritzketatu du eta azaletik bertatik aste-kariak iradoki du bakarrik geratzen ari dela gudarekin jarraitzeko asmoekin. Aldi berean, *Economist* aldizkariak Zaluzny jeneral ukrainarra elkarritzketatu du eta honek adierazi du guda “ez atzera ez aurrera” dagoela. Guda amaierara heltzen ari da? Errusiak irabazi du?

ARGIaren irakurleek behin baino gehiagotan irakurri izan dituzte nazioarteko gaiak jarraitzen dituen Moon of Alabama blogeko analisen erreferentziak. Ukrainako gudari dagokionez, *The Ukraine Peace Talk Trial Balloon* artikuluan –Ukrainako bake elkarritzketen globo sonda–, jaso du azken egunotan AEBetako administrazioak bateko eta besteko hedabideetan argitaratu dituen informazioak. Blogaren egilearen ustez “globo sonda” izan litezke ikusteko ea nola erreakzionatuko lukeen AEBetako iritzi publikoak AEBek eta NATOk Ukrainan guda galdu dutela jakitearen aurrean.

NBC hedabidearen informazioetara itzulita, ondorengo dio: “Ukrainako agintariekin izandako elkarritzketetan atera da zer behar luketen Errusiarekin adostasun batera heltzeko. Elkarritzketak hauek –ofizialek delikatu gisa definitu dituztenak– duela hilabete gertatu ziren Ukraina babesten duten 50 herrialdetako ordezkariarekin, NATOko kideak barne. Ukrainaren Defentsarako Harreman Taldea du izena talde horrek”.

AEB eta Europako agintariekin ikusten zuten guda ez atzera ez aurrera geratu zela eta Ukrainari laguntza militarra emateko gaitasunak kezkatuta abiatu zituzten elkarritzketak. Bidenean administrazioako ofizialak, horrez gain, kezkatuta daude Ukrainaren indar militarra ahitzen ari ote den, Errusiak amaierarik gabeko hornidura duen bitartean. “Ukraina aldi berean, jende gehiago errekrutatze zailtasunak izaten ari da eta Volodymyr Zelensky presidenteak errekrutatze mugagaberako



egin dituen baldintza aldaketen harira protestak izan dira”, jaso du NBCK.

NBCn diote Biden kezkatuak da goela Ukrainak gudara bidaliko dituen pertsona kopuruarekin. “AEB eta bere aliatuek armak bidal ditzakete Ukrainara, baina ez badute hauek erabiltzeko jende kualifikatua, ez du onik egiten”, dio egunkariaren iturri militar batek.

Zaila da kalkulatzeko zenbat hildako izan dituen Ukrainako armadak, baina Moon of Alabama kalkulatu dituzte 300.000 hildako eta 500.000 zauritu inguru, horietako asko elbarri bizi osorako. Aldi berean, Gazan guda hasi izanak nazioarteko arretagunea erabat mugitu du Ekialde Hurbilera.

Honela amaitzen da Moon of Alabama-ren analisia: “Errusiak bake elkarritzketak onartuko lituzke. Hori bai, Ukrainari eskatuko lioke emateko prest dagoena baino gehiago. Gutxienez, anexionatu dituen bost oblasten erabateko kontrola, Krimea barne, eta Ukrainak NATOrekin ez harremanik izatea. Ukrainako egungo legebiltzarrak eskaera horiek atzera botako ditu eta horrek ekarriko du Errusiak oraindik eta baldintza gehiago jartzea. Kiev-ek ez du errealitatea onartu oraindik. Ukrainako estatua odolusten ari da –finantza aldetik eta fisikoki–. Guda bultzatu zutenen hasierako helburuek –Errusia ahultzea– aurkakoa ekarri dute. Errusia orain handiagoa da eta militarki hobeto armatuta dago (...) Errusiak irabazi du”. ●

TEKNOLOGIA

## Mugikorrari beldurra



DIANA FRANCO

**G**izakion izaeran badago gure bizitzetan arriskutsuak izan daitezkeen aldagaien gainean kontrola izateko beharra. Beldurra eragiten diguten arriskuak txikitzeko beharra dugu, lasaitasuna lortzeko. Bide horretan, ezagutzak gure bihotzak lasaitzeko aukerak eskaintzen dizkigu. Historian, beldurra izan da baita ere zenbait gizarte eredu sortzeko eta menderatzeko eragilea.

Gaur egun, pertsona askorentzat mugikorra ziurgabetasun eragile bat da. Arrakala digitala ez pairatzeko gailu hori behar dugula esan digute, baina ohartzen ari gara arrakala digitala murrizteko ideiarekin zaurgarritasun digitala pairatzen duten pertsona kopurua handitzea bultzatzen ari garela.

Astero zaurgarritasun digital egoeran dauden 20 bat lagunen mugikorrak izaten ditut neure eskutan. Pertsona hauek euren mugikorrak mehatxu bezala ikusten dituzte: iragarkiz eta jakinarazpenez beterik dituzte gailuak. Askotan, modernitate kutsuarekin eta prezio baxuan saltzen diren gailuak zaurgarritasuna sortzeko aukera handiagoa dutenak dira, datu estrakzioa bilatzen duten negozio ereduak elikatzeke diseinatzen direlako.

Hona mugikorraren gainean kontrola apur bat handitzeko lau pauso txiki:

Mugikorraren doikuntza atalean:

1) Google zerbitzuak kudeatu, iragarri Id desaktibatu.

2) Jakinarazpenak kudeatu, kendu ahal dituzun gehienak. Mugikorrak zu uneoro abisatzeko baimena izan beharrean, mugikorra begiratzeko egunero tarte bat izatea baloratu, zure kontrolpean izango duzu informazio fluxua.

3) Pribatutasuna handitzeko baimeak kudeatu.

4) Behar ez dituzun aplikazioak desinstalatu.

Honekin behintzat, “zarata” apur bat kudeatuko duzu, eta kontrola zure eskutan duzun sentzazioa handituko duzu. ●



# Gogoratu



UXUE APAOLAZA LARREA

**B**azen pertsona bat, gaztea zela uste zuena duela gutxira arte, arriskugabea iritzi zion elkarriketa batean sartu zena, inolako prebentziorik gabe. Beraz, erreparorik gabe hasi zen bere lehen etxebizitza konpartituei buruz hizketan, elkarriketakideak ezagutuko ez zituelakoan. Kontua da ezagutzen zituela, eta kontua da gogoratu ere, berak baino hobeto gogoratzen zituela, eta kontua da gogorarazi egin zizkiola berak bere kabuz aspaldian gogoratu gabekoak. Eta, batez ere, pertsona horrek bere burua ikusi zuela ahanztura horietan definituta.

Giza ale hori nahiko irakurria zenez, Flauberten aipu bat etorri zitzaion gogora, hark maitasun-gutun batean idatzita utzi zuena. Zioen, gutxi gorabehera, maitasuna jakin-min mota goren bat dela. Beraz, ondorioztatu zuen, jakin-minez maitemintzen garela. Beraz, pentsatu zuen, maitemina sortzen zioten kontuak gogoratuko zituen, jakin-mina sortzen zioten pertsonak. Eta ez-gogoratzen zuen pertsona horren garaiko nor gogoratzen zuen errepasatzen hasita, ohartu zen bera ere iragarkietako distira kapitalistatik ez hain urrun ibili zela bere filia ustez alternatiboak eratzeko orduan. Alegia, altu hitz egiten zuten, asko mugitzen ziren, iritzia maiz ematen zuten, irribarre/negar egiten zuten, zaratatsuak ziren, distiratsuak, indartsuak ziren...

Bazen pertsona bat bere bizitzako pertsona isil bat gogorarazi ziotena; lotsatu egiten zena, ez zuena hitz egiten, ez zuena irribarre asko egiten, ezta negar ere, isila zena, ez zena asko mugitzen... Ordu-rako gaztea ez zela onartuta, errazagoa izan zitzaion bera izan zen gazte hura zein estúpidoa izan zen ikustea: isilik begiratzen bazion ez baitzen iritzirik ez zuelako; entzun izan zion bakanetan esan zuena, pertsona indartsu batek esana baitzirudien; isilik ere, ez zuelako inoiz injustiziarik isildu. Izan ere, isiltasun temati hori zen adimen erakustaldi handiena, isiltasun temati hori zen iragarkietako zoriontasun estúpido horren ifrentzu behinena. Bazen pertsona bat ohartu zena bere gaztetako jakin-mina azalekoagoa zela uste zuena baino; bazen pertsona bat ohartu zena gaizki maitemindu zela; bazen pertsona bat, oharkabean pasa zitzaizkion pertsonez ohartzeko hasi zena; bazen pertsona bat, oharkabean joan zitzaion bizitzaz ohartu zena. ●



## MOTZEAN

**EAE**n turismo-zerga ezartzea aztertzeko lan-batzordea sortu du Turismo Mahaiak. Hasteko, turismo-zergak ezartzen esperientzia duten lekuetako ordezkariak izango dituzte. Bartzelonan, esaterako, egonaldiko lehen zazpi egunetan tasa turistikoa bost eurokoa da pertsona eta egun bakoitzeko.

**Arantxa Tapia sailburuari** "influentzia-trafika" egotzi diote. **Jaime Ignacio del Burgok** sustatu du auzia. Arrazoi berak ekarri zuen **Manuel Ayerdi Nafarroako** Gobernutik ateratzea.

Onartuta zuten hirugarren gradua kendu eta espetxera itzularazi ditu Auzitegi Nazionalak **Juan Carlos Subijana** eta **Joseba Borde** euskal preso politikoak. Subijana larriki gaixo dago.

**Ertzaintza** aztertzen ari da urruntze agindua duten emakumeen erasotzaileak zuzenean kontrolatzea. Emakumeak poliziekin kolaboratzeko "errezeloa" duen kasuetarako litzateke.

Palestinaren alde azaroaren 3an GKS<sup>k</sup> PSOEren egoitza aurrean egindako kontzentrazioari eraso egin zion Ertzaintzak. Salatu dituzte "jazarpen poliziala", atxilotu bat eta zauritu ugari.

## EKONOMIA

# Garesti irteten zaizkigun irabaziak



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**B**izitzaren garestitzea bistakoa bada ere, baditu hain agerikoak ez diren aurpegiak. Bata, eros ahalmen gutxiagorekin funtsezkoak diren gauzak erosteko gehiago ordaindu behar izateari bilatzen zaizkion irtenbideak. Ikerketek diote azken hilabeteetan kontsumo ohiturak aldatu egin direla etxe batean baino gehiagotan, eta ez kontsumismo basatiaz jabeturik daudelako edo gehiegikeriei uko egiteagatik; elikaduran eta bizitzeko premiazkoa den argindarrean igarri dira aldaketa horiek, tresna elektrikoaren erabileran, esaterako.

Ezkutatzen den beste aldea, egun hauetan ezagutzen ari garen zenbait enpresen neurritz kanpoko irabazien eta etxeetako estualdien arteko lotura zuzena da. Bi egoera horien berri eman arren, biak albiste izan arren, irabaziak aurkezteko agerraldietan nekez aurkituko ditugu zenbakien atzean dauden kalteak. Eta ez dugu gobernu buru edo kide bakar bat ere entzun irabaziak kritikatzeko, estutzen gaituen prekarizatzeko prozesuaren atzean, aberastasunaren metaketa gero eta handiagoa dagoela bistakoa den arren. Bien bitartean, Petronorren eta Repsoleko buru eta kontseilariak diren Emiliano Lopez Atxurra eta Josu Jon Imazek mehatxu egiten dute, euren neurria egindako politika fiskalean ezer aldatu ez dadin.

Ez daude prest aparteko irabaziengatik zergak ordaintzeko, ezta bizitzaren garestitzearen eta irabazi horien arteko lotura onartzeko ere; ez dute inolako erantzukizunik bereganatu nahi sortzen ari diren prekaritate eta pobreziaurrean. Batzuk gobernu akordioak eta aurrekontuak adosten ari diren momentu honetan, galdera da gobernu horiek prest ote dauden kontuak eskatzeko. Oraingoz ez da halakorik ikusten. ●

## ANALISIA



CHALET'S IRATY

## Glaziarren omenezko hiletak

**JON TORNER ZABALA**

**L**arrialdi klimatikoaz ohartarazten gaituztenean entzungor egiten dugu maiz, munduaren parte honetan bizitze hutsagatik ondorioz sufrituko ez bage-nu bezala. Errealitatea ordea, burugorria da.

Alpe D'Huez estazioak hartzen duen Sarenne-ko glaziar "hil berriari" azken agurra eman diote frantziar Alpeetan, hileta sinboliko batekin, duela lau urte Islandiako Okjökull eta Suitzako Pizol glaziarren omenez egin zuten moduan. Frantziako Estatuan, Sarennekoa da gisa honetako omenaldia jaso duen lehenbiziko glaziarra. Ez da azkena izango, zientzialariek ohartarazi dutenez. 3.000 metroko garaieran kokatua, ehun urte pasatxotan haren zabalera 124 hektareatik ia hutsera pasa da. "Azken urteetan abiadura askoz ere biziagoan urtu da", nabarmendu dute glaziologoek.

Bestetik, Iratiko eski estazioan, iraupen eskia egiteko aukerarik ez da izango datorren denboraldian, klima aldaketa dela-eta. Txaleten zuzendari Josy Arrosagaray-ren hitzetan, "eguraldia aldatzen ari da han goian", eta haize ufadek eta tenperatura aldaketek zaildu egiten dute elurrarekin lan egitea. Iraupen eskia egiteko pistak itxiko dituzte, ez ordea erraketekin ibiltzekoak.


Gisa honetako albisteek, ziurrenik, zientzialariek emandako datuek baino gogorrago astintzen dituzte kontzientziak, zenbakiak gero eta ozenago mintzo diren arren egoeraren larritasunaz. Esaterako, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren (OPCC) arabera, elur artifizialik gabe mendilerroko estazioen %63k itxi egin beharko luke hemendik urte batzuetara, eta hura baliatuta ere, hirutik baten patua desagertzea da.

Okjökull glaziarra zegoen lekuan plaka bat jarri zuten 2019an, etorkizuneko biztanleei zuzendutako mezuarekin: "Datozen 200 urteetan gure glaziar guztiek patu bera izan dezakete. Plaka honek erakusten du badakigula zer gertatzen ari den, eta zer egin beharko genukeen. Soilik zuk dakizu zegokiguna egin genuen ala ez". IGS elkarteak egindako ikerketa baten arabera, 2100 urtera bitartean Alpeetako glaziarren %90 desagertuko da. "Aurreikuspen beldurgarriaren aurrean, badira ekosistema babesteko ahalegina egin nahi dutenak, baina baita elur-jardueretan inbertitu nahi dutenak ere, saihestezina dena atzeratu nahi dutenak elur artifizialeko kanoi eta azpiegitura iragankorrak baliatuta", idatzi du Laurie Deboyek *La Relève et La Peste* gunean.

Datozen urteetan planeta sobera berotzea nahi ez badugu, CO2 emisioak murriztea ezinbestekoa dela gogorarazi digute Londresko Imperial College uni-bertsitateko zientzialariek. Alferrik gabilta entzungor egiten. ●

# Euskaldunen artean, euskara hizkuntza nagusi dutenak gero eta gutxiago

SUSTATU CC BY-SA 3.0



2021eko inkesta soziolinguistikoaren datuei erreparatu die Iñaki Iurrebaso soziolinguistak, Administrazioa Euskaraz aldizkarian: "Desoreka handia dago egungo Euskal Herrian: gaztelanien/frantsesaren gaitasuna indartsu azaltzen zaigu, eta euskal gaitasuna ahul. Datu horiek eta euskara-erdararen egoerei buruz bildu ditugun beste hainbatek (erabilerari, transmisioari, hizkuntza-bilakaerari eta hizkuntzek lurraldean duten nagusitasunari buruzkoek, zehazki) zera ondorioztatzen garamatzate: minorizazio gorriko egoeran dago euskara".

Eta ondorio horiekin Iurrebasok eskatzen duena hemendik aurrerako hizkuntza-politiketarako: "Euskara indarberrituko bada, hortaz, euskaraz hitz egiteko oinarritzko gaitasun bat duten hiztunen multzoa handitzea bezain garrantzitsua izango da euskara hizkuntza nagusi dutenen multzoa handitzea, errazago euskaraz hitz egiten dutenena, alegia. (...) Euskaraz aritzeko erraztasunean sakontzeko proiektuak indartzea/osatzea ezinbesteko ildo behar du, belaunaldi berrien ahozkotasanari-informaltasanari-jarriotasanari lotutako alderdietan bereziki". ●



## ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK  
EKITALDIAK , OSPA KIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · [www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

# PATRIARKATUAK DAKAR EMAKUMEAK DIRELA HONDAMENDI NATURALETAKO LEHEN KALTETUAK

Hondamendi naturalek ez dituzte pertsona guztiak berdin kaltetzen. Uholdeen ondorengo biziraupena aberastasun mailak baldintzatzen duela aski ezaguna da. Aldiz, askoz gutiago ohartzen gara generoak biziraupen hori baldintzatzeaz: zergatik zehazki emakumezkoak gehiago hiltzen dira hondamendi naturaletan? Hondamendien ondorioz zergatik haien bizi baldintzak txartzen dira? Arau patriarkalek eta genero bakoitzaren rol sozialek hainbat modutan emakumeak zaugarriagoak bihurtzen dituzte.

 NICOLAS GOÑI

**L**ibia jo zuen Daniel ekaitzaren euriteek urtegi zaharkitu bat puskaturik, milaka pertsona hil ziren irailean. Hondamendi hori albiste nagusietatik laster desagertu bada ere, biziraun dutenen zama ez da modu berean desagertu. Trauma gainditu behar izateaz gain, emakumezkoak egoera bereziki larrian daude, osasun beharrei erantzun ezinean. Hajar Darwish emakumeen sexu-osasunean aditu libiarrak azpimarratzen du maiz antolakunde humanitarioak gizonez osatuak direla eta nabari dela gizonezkoek hartzen dituztela erabakiak: bururaturiko lehen gauzak elikadura, jantziak eta botikak dira, aldiz emakumeen behar bereziei erantzuteko materiala askoz beherago agertzen da zerrendan, askotan desegokia da, prestatzen dituenak maiz ez daki hilerokoak izatea zer den... Darwishek dio ere Afrika iparraldean hilerokoentzako produktuak erostea egoera normalean zaila dela, lotsazkoa edo ia ilegala balitz bezala, eta horrek zailtzen dituela beharren identifikazioa eta behar bezalako erantzuna, infekzio arriskuak emendatuz. Emakume haurdunentzako eta ume jaio berrientzako higieine edo mediku zerbitzu eskasak ere hilkortasuna emendatu dezake. Konponbide bat izan daiteke emakumeentzako laguntza programa bereziak antolatzea, eskualde bakoitzeko erreferentzia kultural egokiak dituzten emakume taldeak sortuz. Ho-

rrek gizon zurian oinarrituriko estandar “unibertsalak” aldatzea suposatuko luke.

**MUGITU EZINAK, HERIOTZA DAKAR** ARGIAko 2840. alean *Urperatzeari egokitzeko aukerak eta mugak erakusten dizkigute bangladeshtarrek* artikuluan aipatzen genuen Bangladeshen ama bat buru duten familiak aita bat buru dutenak baino pobregokoak izanik, haien irabazien zati bikoitza erabili behar duela hondamendiei aurre egiteko. Horrez gain, zaintza lanek emakumeen mugikortasuna oztopatzen dute, hondamendien aurrean emakumeak zaugarriagoak izanik. Sonja Ayeb-Karlsson ikerlariak *Climate Risk Management* errebistan argitaraturiko *When the disaster strikes: Gendered (im)mobility in Bangladesh* [“Hondamendia gertatzen denean: genero-mugikortasun(ezin) a Bangladeshen”] idatzian azaltzen du Bangladeshen genero rol sozialek baldintzatzen dutela zikloien garaian aterpeetan babesteko joera. Gelditasuna generoari oso lotua zaiola azaltzen du, gizonezkoengandik igurikatzen direlako mugikortasuna eta ausardia, emakumezkoentzat, aldiz, mugikortasuna arriskutsua delakoan.

Igurikimen horiek indartzen dute emakumezkoentzat etxeko jardueren menpekotasuna, eta zikloiak gertatzen direnean, gizonik gabe egonez gero probabilitate handiagoa du bere etxean

gelditzeko –hor hiltzeko probabilitate handiagoa du–. 2004ko abenduko tsunamiak gehien jotako Indonesiako Aceh eskualdean, biktimen hiru laurdenak emakumezkoak ziren. Hala iragarri zuen Oxfam GKEak 2005eko martxoan argitaratutako *The tsunami’s impact on women* (“Tsunamiaren eragina emakumeengan”) txostenak. Ezberdintasun horren arrazoiak nagusiki jarduera ekonomikoan dautza: tsunamiak jo zuen momentuan, kostaldeko herrietako gizonezko asko itsasoan zeuden arrantzan. Uhinak, nabaria izan arren, ez zituen barkuak irauli. Landa eremuetan, gizonezkoak etxetik kanpo zeuden, soroetan lanean edo merkatuetan ekoizpena saltzen. Emakumezkoak etxean hurrekin, eta uhinak jo zuen momentuan haurrak biltzen saiatzen igarotako segunduak erabakigarriak izan ziren. Antzeko lekukotasunak daude Indian. Sri Lankan, faktore horiei gehitzen zaie irakaskuntzarena: mutikoei irakatsi ohi zaie igeri egiten eta zuhaitzetara igotzen, aldiz neskei ez. Tsunamia bezalako gertakizun batean eskas hori beren bizitzaz ordaindu zuten askok.

2007ko *The Gendered Nature of Natural Disasters: The Impact of Catastrophic Events on the Gender Gap in Life Expectancy, 1981–2002* [“Hondamendi naturalen genero-izaera: hondamendien eragina bizi-itxaropenean, 1981–2002”] lanean Eric Neumayer eta Tho-



### UHOLDEAK MALAWIN

2015etik goiti, uholde eta lehortengatik laborantzaren etekina asko murriztu da Malawin. Elikagai eskas horrek horretara beharturik, adingabeak direla ezkondu behar izaten dute neska anitzek. Argazkia: Creative Commons.

mas Plümper ikerlariek 141 herritan 1981 eta 2002 urteen artean gertaturiko hondamendi naturalak aztertu dituzte. Joera orokor batzuk identifikatu dituzte: hondamendi naturalek, batez bertzean, emakume gehiago hiltzen dituzte, eta emakumeak gizonak baino gazteago hiltzen dira –ezberdintasun horiek handiagoak dira ezbehar hilgarriagoetan-. Aldiz, emakumeek maila sozioekonomiko goragoa duten lekuetan ezberdintasun horiek txikiagoak dira. Haien hitzetan, sozialki eraikia den emakumeen zaurgarritasunak dakar hondamendietan emakumezkoen heriotza-tasa gizonazkoena baino handiagoa dela, eta hori ez da generoen arteko ezberdintasun biologiko edo fisiologikoei lotua.

### ARAU PATRIARKALAK INDARTURIK

Malawin, Afrikaren hegoaldean, ezohiko euriteak izan ziren 2015ean. Horren ondorioz, etxalde askok uzta lokazpeaturik galdu zuten eta elikadura baliabideak urritu zitzaizkien. Ondorengo urteetan El Niño fenomenoak eragindako lehortek ez zuen egoera hobetu. Testuinguru horretan ugaritu ziren adin txikiko nesken ezkontzak. Horri buruz *Brides of the sun* ("Eguzkiaren emaztegaiak") dokumentala argitaratu zuten Maria Uderscu, Miriam Beller eta Gethin Chamberlain kazetariak. Bertan Ntonya Sanderen lekukotasuna agertzen da: 13 urte zituelarik, 19 urteko gizon batek bere burasoei proposatu zizkien 50 kilo azukre eta 25 000 MWK (30 euro), beren alabaren eskuaren

truke. Ntonyak burasoei esan zien ez zela horretarako prest, baina burasoei onartu behar zuela erantzun zioten, etxean jateko aski ez zegoelako. Ntonya bezalako milaka daude. Malawiko gizon gazteen bizitzak klima aldaketarengatik gogorrak izanik ere, gehienak 18 urte eta gero ezkontzen dira eta ez dituzte burasoei behartzen. Tradizio patriarkalek hala bultzaturik, neskek dira horrela ezkontzera behartuak, janaria eskas denean. Youth Net and Counseling (YONECO) gazteria laguntzeko antolakundearen zuzendaria den Mac Bain Mkandawiren arabera, adin txikiko nesken ezkontzen %30 eta %40 artean klima aldaketari lotuak dira Malawin –1.5 milioi neska lirateke egoera honetan-. ●




ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Oskar Sada, *Gomi*

MARIKA EKINTZAILEA



## OSO INTERESGARRIA DA HETEROEKIN ALIANTZAK EGITEA, DENOK PATRIARKATUAREN PRESIOA SUFRITZEN DUGULAKO



Iruñerrian genero disidentziaz hitz eginez gero, goiz ala berandu, *Gomi*-ren izena agertzen da. EHGAMeko militante sutsua, musikaria, fanzineroa, aktibista polimorfiko eta besarkada emailerik onena. Orain kementsu ari da ikasten LGTBI kolektiboko hirugarren adineko jendeari zerbitzu berriak emateko asmoz.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Zer dela eta ari zara orain Gizarte Hezkuntza ikasten?

Beti egon naiz, modu batean edo bestean, zaintza ekimen komunitarioetan murgilduta, beste mundu bat posible dela sinistuta. Orain, neure buruarekin bakean nagoela eta gauza pila gainditu ondoren, une egokia topatu dut ikasteko, gai horiei modu profesionalean ekiteko asmoz. Karrera amaitzear nago eta nire asmoa da LGTBI kolektiboko hirugarren adineko jendeari laguntza emanez lan egitea.

### Nolako laguntza?

Bada oso egoera zailean dauden pertsona asko. Gehienek Arriskugarritasun

edota Alfer eta Gaizkileen legeek ezarritako zigorrak ezagutu zituzten gazte garaian eta lan aukerak ere oso murrizak izan dituzte beti. Trans eta trabestien kolektiboan adibidez, bizirik irauteko askok prostituzioan aritu behar izan dute, legez kanpo erabat, eta orain adinduak direnean ez dute pentsiorik kobratzen. 400 euroko laguntza soziala baino ez dute jasotzen eta beren bizitzak erabat prekarioak dira. Madrilen Abenduak 26 izeneko elkarteak LGTBI jendearentzako harrera etxeak zabaldu ditu, kolektiboan etxerik gabeko pertsona asko dagoelako.

Euskal Herrian halako etxeak zabaltea ez litzateke izanen horren premiaz-

koa jende asko sexiliatu delako, HIESAren ondorioz asko hil direlako edo armairuan ezkutatu direlako. Hemen formakuntzaren bidetik ikusten dut nik laguntzeko bide egokiena: formakuntza eman nahi nieke hirugarren adineko pertsonekin lan egiten dutenei eta baita zerbitzu horien erabiltzaileei ere, ikus dezaten jende guztia ez dela zis-hetero normatiboa. Nire asmoa da ekarpen bat egitea pertsona horiek beren bizitza gara dezaten duintasunez, ahal den homofobia, lesbofobia eta transfobia gutxieneko ingurune aske batean.

**Mundu ikusezin bat gizartearen zati handienarentzat?**



# Oskar Sada Muruzabal

IRUÑEA, 1971



Jende askok *Gomi* bezala ezagutzen du Oskar Sada, Txantreako Zazpi denda txikian urteak daramazkielako gominolak, ogia eta antzekoak saltzen. EHGAM Nafarroa taldeko kidea da 16 urte zituenetik. Auzotegi kultur gune komunitarioko ikasle eta bultzatzailea, Koiuntura eta FlakUtt musika taldeetako kidea, txalaparta jotzailea eta pentsamendu politikoa jorratzen zuen *Disidenteak Betiko* zine eta haur eta gaztetxoentzako *Pulunpetto* eta *Xomorro* fanzineetako sortzailea izan da. Orain Gizarte Hezkuntza karrera amaitzen ari da UNEDen LGBTBI kolektiboko pertsona adinduentzako zaintza modu berriak antolatzeko helburuarekin.

Bai, hala da. Marika eta militante gisa gauza asko sumatzen nituen, baina orain hori dena ikerketen bidez eta datuekin egiaztatuta dagoela ikusten ari naiz, eta gauza harrigarri asko ikusten dira.

Adibide bat: zu Kolonbiatik ihesean zatoz genero disidentea zarelako. Iristen zara hona eta sartzen zaituzte pisu batean non Kolonbiako jende gehiago dagoen. Haiek beren betiko ikuspegi bera dutenez, zuk jarraituko duzu pairatzen egoera bortitz hori. Infernu batetik bestera pasako zara. Hori ez da zilegi.

## Nola hasi zinen militatzen EHGAMen?

16 urterekin hasi nintzen EHGA-Men. Aldi berean, Auzotegi bezalako hainbat herri mugimendutan hasi nintzen parte hartzen Txantrean. Gabezia asko zegoela ikusten nuen eta nik bezala beste mundu bat posible zela aldarrikatzen zuen jendearekin elkartzen hasi nintzen. Biziki flapatzen zuten nirekin, marika militantea izanda, baina zaintzen ninduten eta denboraren poderioz jabetu naiz kolektibo horietan aritzeagatik zainduta eta babestuta egon naizela beti auzoan.

Genero disidente bezala aurrera ateratzeko gelditzen zaizun bide bakarra ahalduntzea da eta nik hori lortu nuen EHGAMi esker.

Oso lan ezkutua egiten genuen, baina oso garrantzitsua. 1984an hasi zen HIESAren kontua. Auzoan, beste toki guztietan bezala, oso estigmatizatuta egon zen, eta inguruko jende pila hil zen heroína kontsumoarengatik eta xiringak partekatzeagatik. Guk apenas genuen marika erreferenterik, eta genituen gutxi horiek, beren buruaz beste egiten zuten edo munstroak ziren. Nerabezaroan egoera hori bizitzea oso gogorra izan zen. Urte latz haietan geure burua zaintzen ikasi genuen komunitatean. EHGAM nire unibertsitatea izan zen. Niri kolektibitateak bizia eman dit.

## Gaur egun nola dago elkarteak?

Baditugu hainbat errealitate. EAEn prozesu bat izan da, KOSA izenekoa (Koronabirus Osteko Sexu Askapena).

Beripitze bat izan da eta belaunaldi aldaketa ere bai, EAEn jende helduagoa zegoelako hemen baino. Hemen Nafarroan, 2000. urtean EHGAM Nafarroan Kattalingorri Elkarteak sortzea erabaki genuen beste subjektibitate batzuekin ere bat eginez (transak, bollerak...). EHGAMeko militanteak hamaika borrokatan ibili gara bai karraketan, bai instituzioetan, modu autonomoan, sexu askapenaren alde eta beti nazio ikuspegiarekin. Orain, 23 urte igarota, zerbitzu ofizial bat dugu Nafarroa Garaian, Kattalingune, Kattalingorri orain dela guti arte kudeatutakoa. Autogestioan funtzionatzen zuen zerbitzu hori erakundeek beren esku hartu zuten gobernu aldaketaren garaian. Kattalingunek Nafarroa osoari ematen dio zerbitzua eta gauza bera egiten du Iruñean Harrotu Udal Zerbitzuak. EHGAM, oro har, indartsu dago eta gauza oso politikak egiten ari gara.

“**Tamalez, gay kolektiboetan ere misoginia zantzuak ikusi ditugu eta horien kontra borrokatu gara, gure pribilegioetatik aldendu nahian”**

**Aurrekontu mozketak izan dira berriki...**

Ez dugu ulertu zer gertatu den hor. Baditugu gure susmoak. Trans legearekin ematen du PSOE kikildu zela hasieran, nahiz eta gero aurrera atera zuen, eta badirudi hemen ere halako zerbaite gertatu zela.

Orain, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren barrenean aldaketak izan dira berriro eta espero dugu Kattalingunek zeukan autonomia eta aurrekontuak berreskuratuko dituela. Azkenaldi honetan jende gutxiago aritu da lanean eta Tuteran, Tafalla eta mendi aldeko eskualdeak zerbitzurik gabe gelditu dira. Oso beharrezkoa da zerbitzua toki guztietara iristea. Ikusten ari gara gorroto mezuak gero eta gehiago direla, eta argi dago hezkuntzan lan handia dagoela egiteko.

## Nola dago kuir ahalduntze mugimendua Nafarroako landa eremuan?

Estatuko beste toki askotan bezala, oso mugimendu interesgarriak daude Nafarroa Garaian: Erriberan Somosmarte taldea dago Murchanten, Tuteran Kukuluak, Tafallan eta erdialdean Laiak, Lekunberri-Leitzan Hormak, Baztanen Harro Baztan, Antsoainen Harro... eta beste herri batzuetan



batzordeak sortzen ari dira homofobia erasoak gertatzen direnean, herritar askoren sostenguarekin.

Gaur egun harreman eta ikusgarritasun handiagoa dago sare sozialei esker. Lehen isolamendu izugarria zegoen.

### **Gazteek beste modu batez bizi dute genero disidentzia?**

Oso interesgarria da ikustea nola bizitzen ari diren hau haien ahalduntzetik. Gauza batzuek berdin jarraitzen dute. Heteroaraua oso egiturazkoa denez, 30 urtean panorama ez da horrenbeste aldatu. Ahalduntze ariketa horri oso erantzun bortitza ematen ari zaio zenbait sektoretatik, feminismoarekin gertatzen ari den bezala.

Mundu mailan bada oso ongi diseinatutako korrante atzerakoi bat eta, kasu askotan, herrien politikagintzan izugarriko indarra du. Diskurtso ebanjelistikak, Trumpistak... esate baterako, pisu handia dute Ipar Amerikan eta Hego Amerikan. Kolonbiako negoziazioetan, adibidez, desadostasun puntu garrantzitsu bat izan omen zen FARCEk LGTBI eskubideetan ere pauso bat aurrera eman nahi zuela, baina mugimendu ebanjelistikak ez zuen ezer jakin nahi izan horretaz. Oso diskurtso fundamentalistak dira.

### **Eta mundu islamiarrean gertatzen dena nola ikusten duzu?**

Hor ikasi behar dugu dena ezin dela berdin irakurri gure mendebaldezentriko motik. Esan nahi dut, kolonizazioetik sortu dira herri horien pobrezia eta egoera tamalgarria, eta horretaz baliatzen dira erlijioak indarra hartzeko. Afganistan edo Libanon ikus daiteke zer atzerakada izan den giza eskubideetan azken urteotan. Garbi dut fundamentalismo erlijioso guztiak gure eskubideen kontra egiten dutela. Aitzitik, gogoratu nola 2017an sortu zen TQILA kuir gerrilla. kuir pertsonen osatutako taldea. Kurduen alde borrokatzera joan zen Estatu Islamiarraren aurka. Erantzunak egon dira. Galdetu beharko genioke geure buruari zergatik erlijioek hartzen duten hainbesteko pisua toki horietan.

### **LGTBI kolektiboan ere gizon homosexualen beste disidenteeke baino ikusgarritasun handiagoa dute?**

Hor gauza batzuk gurutzatzen dira. Lehena da askok ideia dutela emakumeak ezin direla sexualki aktiboak izan. Zer egiten dute bi emakume gizon zalkidunak gabe? Gizon baten sarketarik



gabe, nola da posible sexu harremana? Honekin batera, argi dago lesbianen harremanak ezkutuan mantendu izan direla kasu askotan. Honek balio izan du erasoetatik babesteko, nolabait, baina aldi berean erreferenterik sortu ez izana ekarri du. Bestalde, marikak izan gaitzke begiratuak eta heziak gizon bezala, eta horrek badakar gizartean toki ikusgarriagoa izatea, alor gehienetan gertatzen den bezala. Tamalez, gay kolektiboetan ere misoginia zantzuak ikusi ditugu eta horien kontra borrokatu gara,

gure pribilegioetatik aldendu nahian.

### **Marisolasak bazterrean jardunaldi interesgarriak egin berri dituzue urrian. Zer moduz joan ziren?**

Arrakasta ederra izan zuten. Aurten transfeminismoaren ikuspegitik bideratu ditugu gogoetak eta trans jendearekiko elkartasun adierazpen bat egin nahi izan dugu. Garai batean Iruñeko Nafarroako Gorteen kalean jartzen ziren transexuallak eta trabestiak gure amatxo politikoak direla azaldu nahi izan dugu. Prostituzioan aritzen direnen eskubideak aldarrikatzen ditugu. Honetaz mintzatzeko, adibidez, Juana María Rodríguez egon zen, 1990eko hamarkadan EHGAM Nafarroan egondakoa eta berriki *Put a life: Seeing Latinas, Working Sex* liburuaren plazaratu duena. Gracia Trujillo, Manuela Trasarres eta Itziar Ziga aktibistak ere izan genituen, eta *Mariokerrak, Nola esan/izan bollera euskaraz* liburuaren aurkezpena ere egin genuen euskaraz June Fernandez, Ana Jaka eta Amaia Alvarezekin Laban kafetegian. Oso hitzaldi indartsuak izan ziren eta dena ikusgai dago interneten.

### **Azaroan Xoka jardunaldiak egin behar dituzue berriro Laban. Zertaz?**

Euskal kuir komunitatea ez da oso handia, bereziki Nafarroa Garaian, eta oso atomizatua dago. Horregatik euskararen erabileraz hitz egin nahi dugu. Lan batzuk egin izan dira geure burua eta gure praktikak euskaraz izendatzeko. Aitor



### *Azken hitza*

## **ALIANZAK**

"Gizon eta emakumezko gehienentzat zis-heteroarauaren barruan bizitzea gogorra da, inor ez delako iristen eredu horrek eskatzen duen guztia betetzera. Presioa denentzat dago. Horregatik oso interesgarria da heteroekin aliantzak egitea, denok patriarkatuaren presioa sufritzen dugulako".

Aranak, adibidez, bere garaian gay hiztegia egin zuen eta orain berriki Mariokerrak mugimendua sortu da. Guk, modu sinbolikoan *xoka* hizkera berria proposatu nahi dugu, ez toka ez noka.

Azaroan zehar bi mahai antolatu ditugu Laban: bata *Diskuntza, disidentzia eta hizkuntza*, Ana Jaka eta Gatz Eizagirrerekin; eta bestea, *Kuir* ikuspegia euskal eszena garaikidean, Aner Peritz, Jüje Idiart Thiry eta Eneko Garcia, *Albina Stardust* drag-arekin. Orain lan asko egiten ari gara Labarekin, gu ere euskaldunak garelako eta euskal mundua ere marika, bolleroa edo kuir delako. Espazio desberdinak kuirtu nahi ditugu.

### Orain sozialki erakargarria da LGBTBI izatea?

Egia da badela irekiera momentu bat eta euskal komunitatean oso adierazpen interresgarriak badirela, eta bazen garaia. Hala ere, nik uste dut lasaiagoa dela zis pertsona baten bizimodua. Glamourrak *puntxa* emango dizu momentu batean, baina egunerokotasunean zailagoa da dena.

Jendartearen zati handi batek begirada zentratua du bere heterozentrismoan. Noraino onartuko dute gure sor-kuntza lana, adibidez? Esate baterako, iaz Maruxak izan ziren txosnetan eta

egoera bortitz batzuk sortu ziren. Argidago ikusleen artean ez daudela soilik gure lagunak... Publikoaren erantzuna izan zen erasoak arbuiatzea.

Euskal komunitatean beti egon da kuir mugimendua. Orain, zorionez, hori dena azalera ateratzen ari da. 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi ondoren Saioa Alkaizak kantatu zuen bertsoa mugarri bat izan zen: "Musu handi bat iraultza den gorputzera/ ez-bitarra, -a, transa, marika eta bollera/mundua ederragoa da hurbilduz bazterrera". Katakunbetatik ateratzen ari gara eta hori oso ona da.

Sexu-genero disidenteak diren institutuetoako gaztetxoak beren lagunekin, beren koadrilarekin, ekainaren 28ko mobilizazioetara joaten ikusten ditudanean, oso gauza ederra iruditzen zait. Aldarrikapena ez da soilik LGBTBI kolektiboko kideen kontua. Hetero izanda mezu hauekin bat egiten baduzu, bizitzeko beste modu batzuk, beste kode batzuk badirela ikusi eta onartu egiten duzula erakusten duzu. Gure kodeak ari dira azaleratzen eta iragazkortasun handiagoa dago.

### Bestalde, aragoiera ikasi duzu. Eta hori?

San Martin Unx herrikoa da ama eta aita

Oibarrekoa. Ni herri Ikastolara joan nintzen txikit. Disidentzian egon naiz betidanik. Arrarunoa izan naiz beti gauza batengatik edo bestearengatik, eta aragoieraz hitz egiten duten horietako hainbatek arrarunotzat jotzen du bere burua. Aragoiera eta Nafarroan hitz egiten den gaztelaniaren arteko harremana bada eta guk etxean erabiltzen ditugun hainbat hitz aragoieraz berdin-berdinak dira. Hortik piztu zitzaidan jakin-mina eta gero kultur mugimendu bat, musika taldeak eta hizkuntza ikasteko aragoitegiak bazirela aurkitu nuen. Zaragozako aragoitegi batean eman nuen izena eta internetez ikasi nuen. Iruñeko beste batekin elkartu eta hasi nintzen mintzakide moduko saio batzuk egiten. Zortzi pertsona egon gara talde honetan orain dela gutxira arte. Barnetegiak ere sortu genituen, hemendik bultzatuak eta euskararen ereduari jarraikiz. Haiek oso gutxi dira, 11.000 hitzun baino ez, eta oso egoera larrian daude, gu 1970eko hamarkadan geunden bezala. Hezkuntzan, soilik orduz kanpoko ikasgai gisa ematen da.

2018an Aragoiko Gobernuak titulua sortu zuen eta B2koa, mailarik gorena, lortu nuen. Orain nire lagunekin hitz egiten dut aragoieraz eta askotan bakarrik ere bai [irriz]. ●

Azarokoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



# Iritziak

## Estatuen bazka



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**P**alestina, orain. Nazioarteko komunitatea deitzen dugun hori zer den ez dakigu. Agintariek, agindu eta izugarrikeriak egin. Eta nork ekidin halakorik. Zer balio dute hitz, arau, eskubide, arrazoi, zuzenbide eta gizatasun bezalako oinarrizko kontzeptuek horien aurrean, horien gainean.

Historia aztertzeak argituko al digu ezer. Garai luzeetan, juduak izan ziren biktima, zigortuak, jazarriak eta erailak. Antzinakoan hasi, Erromatar Inperioan, Erdi Aroan jarraitu Europan, Gaztelako erresuman 1492tik aurrera, jarrai Portugalen eta beste hainbeste herrialdeetan. Gure Aro Garaikide honetan, berriz, nazismoa izan da fobia irrazional horren goren gradua. Kontzentrazio esparruak, ghettoak, gas-erailketak... Holokaustoa.

Nazismoak sortu lazturak eta Holokausto haren dimentsioak piztu zituzten alarma gorriak nazioartean. Orduan sortu zen *nazioarteko komunitatea* kontzeptu gisa, eta subjektu eraginkor bihurtzeko urratsak eman ziren: Nazio Batuen Erakundea (NBE) sortu zen. Horrela zioen sorrera eman zion gutun edo agiriari (1945eko ekainaren 26an, San Frantzisko hirian): “Gu, nazio batuetako herriak...”. Nazioak eta herriak ziren, beraz, nazioarteko komunitate sortu berriaren subjektu nagusiak. Holokausto berririk gerta ez zedin eta mundu mailako gerrak ekidin beharrez, arau demokratiko unibertsalak indarrean jartzeari ekin zion NBE mundu mailakoak.

Nazioarteko komunitatea bakean eta askatasunean oinarritu behar zuen NBEk. Baina erakundearen beraren manipulazio latza egin da

“Kontuan izan giza familiako kide guztien berezko duintasuna eta eskubide berak eta ukaezinak aitortzea direla mundu osoan askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarriak”. Horixe da, hain zuzen ere, NBEren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala zabaltzen duen printzipio nagusia.

*Genozidio* kontzeptu berria ere nazismoaren jokabide zitalaren ondorioz sortu zen, eta NBEk arau berezia sortu zuen, genozidio kontzeptu berri horren esanahia zehazteko 2. artikuluan: “Genozidioa da talde nazional, etniko, arraza edo erlijioso bat osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz egindako ekintza hauetako edozein: talde horretako kideak hiltzea; kideen osotasun fisiko zein psikikoan lesio larriak eragitea; taldea nahita jartzea bizi-baldintza jakinen mende, zeintzuek eragingo duten kideen

suntsipen fisikoa, osoa edo partziala; taldeko haurrak indarrez lekualdatzea beste talde batera”.

Eta hemen dator Historiak irakasten digun egia garrantza: *nazismoa* deituak beraien aurka egin zuen genozidioaren biktima izandako juduen ondorengoek *sionismoa* deituaren babespean Israelgo Estatu eratu, eta Palestinako herri eta nazio osoaren aurka genozidio gordina egiten ari dira une honetan, azken 75 urteetan praktikatua, baina muturreko larritasunera eramanda. Naziek juduen aurka diseinatu zuten “muturreko soluzioa”, orain, judu sionistek palestinarren aurka birdiseinatua. *Sionismoa*, beraz, *nazismoaren* bertsio eguneratu bihurtua.

Nola ulertu hori? Zer gertatu da genozidio batetik besterako bidean?

Nazioarteko komunitatea bakean eta askatasunean oinarritu behar zuen Nazio Batuen Erakundeak. Baina erakundearen beraren manei edo manipulazio latza egin da, besteak beste. Noren esku? Estatu nagusi eta indartsuen eskuetan. Estatu gutxi batzuen bazka bihurtu dute NBE. Mundua, bere osotasunean, *nazio* eta *herrietan* oinarritu ordez, estatuen sistema bihurtu dute. Estatu bakoitza bere neurri, indar, interes eta dimentsio desberdinetan. Kontrajarriak, maiz. Zapalkuntzarako eta gerrarako prest, beti. Eta Nazio Batuen Erakundearen araei muzin eginez. Hara, Israel sionista eta horren babesle direnak. ●

# Iraun ala iraungi



BEIA SALABERRI  
IRAKASLEA

**E**txeko garbigailua hautsi eta konponarazten saiatu ginelarik, beste baten erostea hobe genuela erran zigun konpontzailak. Merkeago genukeela, ez, aise merkeago genukeela berriaren erostea. Lehen batean ez bazen begi bistakoa, argudiatu zitzaigun, baietz, epe ertainean hala gertatuko zela, hasieran euro batzuk gehiagoren –hain gutxi gehiagoren– sakrifizioa egin eta bakean genuela hainbat hilabetez –ez zituen urteak aipatu–; beraz, berehalakoan agian ez, baina hilabete zenbaitzuetako epean errentagarriagoa zen, makina ez baitzen, maluroski, aski berria konponerraza izateko. Ordukotz, labela D mailara jaitsia zitzaion-eta.

Kontsumo gizarte honen motorrak segitzen du izaten ekoitzi-erosi-bota-erosi-ekoitzi eta abar luze bat, maiz arras hondatuak ez diren gauzak kondentzen eta dirua eskuz aldarazten dituen. Gauza iraunkorrak, patentatuak izanik ere, ez zaizkigu erraz etxera heltzen. Dena da aldatzea eta berritzea. Tresnekin, jantziekin, jostailuekin, kulturarekin. Pentsatu-sortu-saldu-birpentsatu. 2020tik goiti besterik zabaldu bazen ere eredu gisa, eta hastapen batean kontsumo frenesia gelditzeko ahaleginak planteatu bagenituen, laster harrapatu gintuen lehengo pleguak. Eta deus gertatu eta gertatzen ez balitz bezala, berriz ere kreditu eta auto publizitateek itotzen gaituzte.



PAULA ESTÉVEZ

Ondoko astean, espero ez nuen sorpresa ukan nuen, bizkitartean. Haurrak handitu eta etxea bete dugu sekulan gehiago erabiliko ez ditugun puskez. Garajejan metatuak ikusten direnean, hobe ez hastea karbono aztarnaren kalkulatz. Horra non, jada haurrak ez diren horiek, *Legoak*, jokoak, jantziak, zapatak, altzari txikiak, bildumak... bildu eta lerrokatu zituzten eta argazkitan hartu. Ondotik kontuak ireki arazi zizkiguten plataforma ahalik eta gehienetan, prezioak aztertu, deskriptiboak idatzi eta negoziazio estrategiak gogoetatu zituzten. Betiko biziari ekin zioten gero, beren burua doi bat ikusiz enpresa buru gisa, baina tira... Hasieran eszeptikoa nintzen, aitortzen dut. Baina egun gutxi batzuk barne dena saldu zuten eta despeditu paketetan sarturik. Objektu

horiek denek, horien artean anitz kosta zutenak barne, dagoeneko bizi bat izana zuten. Baina bakoitzak bere hartzaila kausitu zuen, bakoitzak norbait seduzitu eta konbentzitu zuen.

Bigarren eskuko objektuen merkatuaren osasun maila. Azken bi urteetan, bigarren eskuko produktuak saltzen dituzten saltzari eta marken kopurua handitu da, baiki. Erosleak ere zentzu horretara doaz. Azpimarratzen dute belau-naldi gazteen eroste ohitura horretara doala lehenik eta berria ezinbestean baizik ez dutela erosten. Omen, batzuek ber-salmentaren kalkulua egiten dutela, potentzialik bigarren bati uzteko, zerbait berria erosten dutenean. Gure aldetik erabiliko ez ditugun gauzek iraunen dute beste batzuen etxe eta eskuetan. Eta egin den diru sarrera erlatiboarekin, haurrek bigarren eskuko opariak egin dizkiote haien buruei.

*Iraungi* eta *iraun* aditzen artean, bi hizkitako ezberdintasuna dugu. Hiztegiari, bata bestearen ondotik datoz. Sarreren artean bata da *iraun*, lehena, eta ondokoa *iraungi*. Bizkitartean, bigarren horren ondotik datorrena *iraunkor* da, bitxiki. Hiztegiko orrialde berean dago, bestalde, pixka bat gorago, *irauli* aditza ere bai. Aldiz, *irauli* aipatzeko, horretara heltzeko, hasteko, tartea dugu eta orrialde hau, motzegia. Anartean, gogoan atxiki: iraunkorrena dena, betiere, ekoizten eta erosten ez dena da. ●

# Elkartasuna elkarrekin



**RUBEN SÁNCHEZ  
BAKAIKOA  
IRAKASLEA**

**A**tsekabez ikusi dut Palestinarekiko euskal elkartasuna bitan zatituta –eta ez dut sartu nahi izan Twitter sarean ere, nire tripen hobe beharrez, birtxioren bat, kitto-. Uste dut Palestinarekiko arduraz jokatzeari dela zatiketa hori ez areagotzea.

Batzuk Donostian zein Bilbon egongo ziren, eta gehienak, nik uste, batean ala bestean, baina bietara joateko moduan. Nago manifestarien artean sentimendu orokor nagusi bat zegoela bi deialdietan ere: Palestina babestu nahiko genuke, ez gara ekidistanteak, ez ditugu ikusten "bi alde gerran".

Izan ere, Israelgo Estatua Palestinaren desagertzean oinarritzen da, sionismoaren teoriatik bertatik –"jenderik gabeko lur bat, lurrik gabeko jendearentzat"-. Estatu genozida da, hamarkadaz hamarkadako Palestinako mapa ikusi edo hildako eta errefuxiatuen datuei erreparatzea nahikoa da, jakin nahi duenak jakin dezan. Palestinarrek bere desagertzearen kontrako erresistentzia egiten dute, eta noizean behin, Gazan, Zisjordanian, 1948ko lurraldeetan, errefuxiatu kanpalekuetan eta munduko edozein bazterretan oihu egiten dute edo odolusten dira, desagertze hori entzun dezagun.

Ezin gara ekidistanteak izan, gainera, Israelek genozidio hori ipar-mendebal-

deko estatuen laguntzaz egiten duelako: "gure" estatuak eurak ere ez dira ekidistanteak.

Bitartean, irudiak ikusten ditugu he-dabideetan, eta kalera ateratzen gara. Zaila egiten zaigu herrien arteko elkartasuna hezurmamitzea: palestinatar bantara atera, sare sozialetako profilean keinu bat, manifa batera joan, informatu, sentsibilizatu... Ematen du ezer ez dela nahikoa. Etsigarria ere bada.

Alabaina, 2005ean, Palestinako 170 elkartek, errefuxiatu sarek, emakume erakundek eta sindikatuk Israelen kontrako Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpaina (BDZ/BDS) abiarazi zuten, arlo politiko, ekonomiko, kultural eta akademikoan Israel modu errealean batean presionatu dezagun oinarritzeko hiru eskubideren izenean: errefuxiatuen etxera itzultzeko eskubidea, 1948ko lurralde-tako palestinarren apartheid eta palestinatar lurren okupazioa amaitzea.

Munduan kanpaina horrek bide opa-roa egin du unibertsitate, musika zein kirol mundu, udalerrri, sindikatu eta abarren aldetik, eta Euskal Herrian ere emaitza onak eta adostasun handiak lortu ditu. Palestinako gizarte zibilak deitu zuen eta tresna eraginkorra eman ziguten egunerokotasunean palestinatar herriarekiko elkartasuna elkarrekin jorratu dezagun. ●

# Irati



**ITXARO BORDA  
IDAZLEA**

**G**oizko berria. Zuberoako Herri Elkargoak kudeatzen duen Irati gaineko eski-estazioa behin betiko zerratzea erabaki du, elur eskasean izanen direlako aurten ere. Oroitzen naiz duela hogeita bat urte, *Pyrénées Magazine* aldizkariko zenbaki berezi batean, "mantalet" zuri gabeziaren perspektiba hori 2050erako iragartzen zutela. Ordukoz jada, etorkizunaren irudikapena izugarria zen. Ikusten dugu aldaketa klimatikoak bi hamarkadaren abantzia daukala. Eta ez da hain seinale ona.

Oôko glaziarrak azken ikara eman du uda honetan, Lushoneko gainalde haietan.

Anetokoa ere, egunetik egunera, urtzen ari dela kontatzen digute bertatik dabil-tzan menditar adiskideek. Pirinio kate horren epiketasanaren gainbehera sentitzen dugu kazetak irekitzen ditugunean, dolore mutu bat, gure etxeko adinekorrik zaharrena hilko balitz bezala. Paisaiak dira desagertzen, ekonomiak, jakintzak, kulturak, gobernu guztiek sustengatzen dituzten munduko lauzpabost miliardunen bekaiz-goaren izenean. Badakit egoera sinplifikatze joera handiegia dudala.

Galdera bat oraino: basoilarrak kantatzen segituko du elurrik gabeko Irati-ko basoan? ●

# Ertzeko bizitzen auto-eraketa sareak eta KoopFabrika



BEÑAT IRASUEGI IBARRA  
KOOPERATIBISTA

**N**iretzat Talaios kooperatibaren eta Olatukoopen bitartez kooperatibismoan eta ekonomia eraldatzailean jardutea zer den galdetzen didatenean, erantzuten dut izan dela lanaren eta kolektiboaren bitartez emantzipazio bideari ekiteko aukera. Eta bide horretan, oso garrantzitsua izan da KoopFabrika eraikitzen jardun izana lankide eta kooperatiba askorekin, baina baita unibertsitateetako GEZKI eta LAN-KI ikertegiekin ere. Guk sorreran izan ez genituen formazioa, bide-laguntza eta saretzea, besteentzat sortzeko aukera eman digun interkooperazio tresna baita. Praktikarekin eta ikerketarekin zortzi urtez eraikitzen eta hobetzen joan garena, denontzat eskuragarri dauden tresna, ezagutza eta metodologiekin. Baina denontzat den bidea da benetan?

Identifikatu dugun erronkarik handiena da abiatutako bidea denontzat izatea, eta bereziki, gure jendartean egoera prekarizatuenean dauden pertsona eta kolektiboentzat. Baina nola eraiki proiektu auto-eratuak, jendartean ikusezin bihurtu ditugun pertsonen bizitza

Ikasi dugu kooperatibismoak eraldatzaile izateko antiarrazista eta dekoloniala izan behar duela

proiektuak sortzeko baldintzarik ez badago, eta auto-eraketarako beharrezkoak diren subjektu saretuekin harremanik ez badugu? Epe luzeko prozesuak garatzea ezinbestekoa da.

Enarak kooperatibaren sorrera bide-laguntzeko aukera izan genuen KoopFabrikan, Gasteiztik Euskal Herri osora emakume migratuei ahalduentzeko formazioa eta aholkularitza ematen dizkiena. Tania eta Katherinek gidatuta erronka kolektiboari eutsi eta epe luzeko KoopFabrika Hegoaldetik proiektua

[koopfabrika.eus/hegoaldetik] martxan jarri dugu, bermatu nahi duena ekonomia sozial eraldatzailea eta kooperatibismoan murgiltzea denontzat irigarria izatea, formazioa, bide-laguntza eta saretzea eskainita.

Urte bizia izan da, Andaluzia, Madril eta Kataluniara eraman gaituena pertsona migratuek sortutako proiektuak ezagutzera, beharrak, zailtasunak eta egiteko moduak ezagutu eta sarea egiteko baliatu duguna, urriaren 6 eta 7an Hernanin *Ertzeko bizitzak eraldatzeko ekintza kooperatiboa* jardunaldiak antolatzeraino.

Ikasi dugu kooperatibismoak eraldatzaile izateko antiarrazista eta dekoloniala izan behar duela, zapaltzen gaituzten ardatzetatik eta ditugun pribilegioetatik abiatuz proiektu eta sare sendoak sortu ditzakegula, ertzeko bizitzak eraldatzean denon bizitzak eraldatzen eta hobetzen ditugulako. Sortzen ari den sarean bidelagun izaten jarraituko dugu.

Bide on, KoopFabrika Hegoaldetik, eta atzerriartasun legeak indargabetu ditzatela orain! ●

**1. FINALAURREKOA**  
**AZAROAK 11**

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Eneko Abasolo Txabarri, Gorka Pagonabarraga Agorria, Iruri Altzerreka Martinez, Koldo Gezuraga Seijido eta Xabat Gallettebeitia Abaroa.  
Gai-jartzailea: Itxaro Juaristi Olaetxea.

**BERRIZ** OLAKUETA  
FRONTOIA. 17:00

BIZKAIKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2023

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

Antolatzailea: Babesleak: Laguntzailea:



## Liburu berria

Prezioa **22 €**


Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

Hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak ARGIAko *Net Hurbil* sailean idatzitako artikuluen aukeraketa bat, gaurko eta biharko mundua hobeto ulertzeko balio dezakeena.

Planetako kontinente guztietako gertaerak, historiak, bizipenak, datuak eta analisiak, lastorik gabeko idazkera fin eta zorrotza erabilia.



# EMAKUMEEN ARRAUNA

## Pisuaren presioak uzten duen ubera luzea

2023ko denboraldia irailean bukatuta, ipurdiko eta esku ahurretako zauriak sendatzeko denbora justua izan dute arraunlariak. Haragi bizia lehortu eta orbain bihurtu zaie askori. Baina zauriak erabat itxi gabe hasi dira gehienak berriro ergometroari tiraka, negu luze eta gogorraren atarian. Aldageletako saltsak ere itzuli dira: “Ondo igaro dituzu oporrak, e! Ederki gizendu zara!”, elkarri esaka “txantxetan” ariko dira hainbat taldetan. Norberaren zamaz gain, traineruko gainerako 13 taldekiderena ere mugitu beharko baitute zibogatik zibogara, eta kilo kontuek dirudiena baino karga astunagoa dute arraunean ere, osasunean eragiteraino, argitaratu berri den ikerketak ohartarazi duenez.

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**A**ne Arbillaga Etxarrik (1986, Pasai Donibane) eta Beñat Larrinaga Garciak (1991, Bilbo) hurbiletik ezagutu dituzte taldekideen gorputzen gainean egiten diren juzguak, eta *arraun munduan* normalizata dauden beste zenbait jarrera ez osasuntsu ere bai. Bizipenetatik abiatu eta emakumeengan fokua jarrita azterlan bat egin dute orain, uste asko baieztatu eta galdera berriak mahai gaineratu dizkiena. Ondorioztatu dute emakumezko arraunlarietan argaltzeko presioa eta elikadura nahasmenak izateko arrisku faktoreak daudela. Halere, ondorio hori “zuhurtziaz” irakurtzeko eta kasu bakoitza baloratzeko beharra azpimarratu dute, orokorkerietan erori gabe.

Arraunlariak dira Arbillaga eta Larrinaga, nahiz eta tostatik jaitsita egon, “arraunlariak ez diolako inoiz arraunlari izateari uzten”, Arbillagak dioenez. Biek

jarraitzen dute estuki lotuta kirolari, eta biak Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak direnez, aukera baliatu dute arraunari buruzko ikerketan sakontzeko, “oso gutxi” baitago gaur arte, eta are gutxiago, emakumeen kasuan. Normalizatutako dinamika batzuen arriskuez ohartarazi nahi dute euren azken lanarekin, eta kirolak arraunlarien osasunean, fisiko, psikologiko zein emozionalean, eragiten dituen kalteak arintzeko informazioa zabaltzen ari dira.

“Emakumezkoen arraunaren argazki bat atera dugu, ez dakiguna da pelikulako protagonistak zeintzuk diren eta zein den gidoia. Argazki horretan ikusten da badagoela presio handia argaltzeko, batik bat taldekideen artean sortzen dena eta uniformearen eraginez azaleratzen dena, eta nahasmenduak edukitzeko arriskua ere ikusten da”, argitu du Arbillagak. Argazki horretan

zenbait kontzeptu erlazionatu dituzte, besteren artean, hauek: nola ikusten du arraunlariak bere burua? Nola eragiten du horretan taldeko presioak? Arrauneko jantziak okertu egiten du gorputzaren gaineko presioa? Zer nolako ongizate psikologikoa daukate? Gorputzaren fisionomiak zer lotura du horrekin?

Argazkia egiteko Gipuzkoako, Bizkaiako, Galiziako eta Kantabriako hainbat klubengana jo dute. Emakumezko 208 arraunlarik galdetegi bat bete dute, aztertzeke ea elikadura nahasmenduen sintomak eta pisuari erlazionatutako presioa dituzten, besteak beste. Horieta-tik 115i gorputz konposizioaren neurketak egin dizkiete, Donostiako eta Bilboko campusetan. Ikertzaileek arraunlarien, klubuen eta federazioen prestutasuna eskertu dute: “Jakitun dira ikerketa esparruan gabezia handia dagoela, eta harre-ra oso positiboa izan dugu”. Emaitzetan





EHEMAR

bertako  
Igogailua

HONDARRIBA

EHEMAR

bertako  
Igogailua

ARRAS BELA

BM

RAVEIRA 9

James & Sons

“hanka sartzeko aukerak saihesteko” laguntza eskatu zuten hasieratik –2021 inguruan hasi ziren–, izan ere, Arbillaga Fisioterapiari aditua da, eta Larrinaga Jarduera Fisikoan eta Kirolean –arraunlarien prestatzaile fisikoa ere bada–, baina gaiak eskatzen duen sentsibilitatea bermatzeko hasieratik gehitu dituzte ikertaldera beste lau aditu (psikologo eta analisi estatistikoan adituak): Erika Borrajo, Iker Muñoz-Perez, Itziar Urkijo eta Ana Garcia-Rodríguez.

### **ARGALTZEKO PRESIOA**

Borrajo psikologoak ohartarazi du galdetegietako emaitzak tentuz irakurri behar direla eta bi faktore kontuan hartu behar direla: batetik, egungo kulturak eta sistemak berak sortzen dutela argal egoteko presioa, eta, bestetik, kirola barrutik ezagutu behar dela eta barne begiradatik landu behar direla gorputzari lotutako jokaerak. “Nik psikologo gisa elikadura nahasmena modu batera ulertzen dut, baina arraunlariak jokabide batzuk normalizat hartzen dituzte, hortik kanpo patologikoak direnak. Kontuz ibili behar gara, eta barruko betaurreko berdinak ipini behar ditugu jokaera horiek lantzeko”. Borrajok zehaztu du ez dela arraroa elikadura nahasmenen arrisku faktoreak agertzea, “maila jakin batean egoteko” pisuak garrantzia berezia duen kirolean: “Galdetegian jokaera batzuei buruz galdetzen da, baina jokaera horiek noizbait gertatzeak ez du esan nahi nahasmen bat dagoenik, baizik eta arriskua dagoela edo hastear egon litekeela”. Ohartarazi dute ikerketak ez dituela emaitza pertsonalizatuak ematen, baina arazoak jabetzeko abiapuntua dela.

Arraunlari emakumeek argaltzeko presioa izateko bi jatorri neurtu dituzte: uniformeena eta taldekideena. “Arraunlarien janzkera oso partikularra da, eta bistaritzen du bakoitzaren kanpo anatomia oso figura espezifikoa; ez bakarrik estropada egunetan, entrenamenduetan ere arropa berdinarekin zoaz”. Arbillagak gogorarazi du eragin handia izan dezakeela jantziak arraunlariak gorputzarekiko daukan harremanean, eta norbere burua ikusteko moduan. Erraz identifikatzen da arraunlarien jantzia: gorputz osoko trajea, tiraduna eta galtza motza, gorputzera pega-pega itsasten dena. Gorputza guztiz zizelkatzen du “mono” edo “platanitoak”, eta horrek arraunlariaren irudi estetikoaren espazio maila nabarmen handitzen du tal-

“Pisuarena borroka pertsonaletik kolektibora pasatzen da, zeren zure pisutik tira egin behar dute besteek ere. Afaltzera zoaz taldekideekin eta ‘zer eskatuko duzu?’, inguruko begiradak daukazu. Dinamika asko ikusi nituen ez zirenak batere osasungarriak”

### **Ane Arbillaga**

dekide, entrenatzaile edo zaleen aurrean, izan aurrez-aurre edo telebistaz, ezin baita ezer disimulatu.

Taldekideei dagokienez, Larrinagak dio “eragin oso handia” dutela, eta ordu mordera igarotzen dutela elkarrekin, entrenamenduetan eta handik kanpo planetan ere bai. Lagunartekotasun horrek arriskuak ere badituela ikusi dute emaitzetan. Esaterako, aldageletan barrea eragiten duten beste gorputzei buruzko komentario ugari etortzen zaizkio akordura ikerlariari: “Arraunlari nintzela entzundako komentario batzuk ez nituen aztertzen eta txantxa gisa hartzen nituen, baina ikerketa honekin hasi nintzen konturatzeko zer eragin dezaketen”. Arbillagak ere gogoan ditu taldekideen arteko dinamika normalizatuak:

“Pisuarena borroka pertsonaletik kolektibora pasatzen da, zeren zure pisutik tira egin behar dute besteek ere. Afaltzera zoaz taldekideekin eta ‘zer eskatuko duzu?’, inguruko begiradak daukazu. Dinamika asko ikusi nituen ez zirenak batere osasungarriak”.

Borrajok azaldu duenez, arriskua dago dinamika eta jokaera horiek kirolek eguneroko bizitzara orokortzen badira: “Nahasmen bati buruz hitz egiten dugunean, esan nahi du jokaerek eragin larria daukatela pertsona baten osasunean eta bere eguneroko bizitzan. Jokaerak kirolean egotea arriskutsua da, noski, baina muga hori igarotzea da benetan arriskutsuena; elikadurari lotutako portaera horiek erabiltzea emozioak kudeatzeko eta arazoei aurre egiteko erreminta gisa”.

Dena den, Borrajok onartu du arraun mundua hobeto ezagutu duela ikerketa honetan, eta lehen “kirol bat bezala” ikusten zuena beste ikuspegi batetik ulertzen duela orain. Udako denboraldi betean, hedabideetan etengabe azpimarratzen dute zein sakrifikatua den kirol hau, baina gutxitan erakusten da atzean dagoena.

### **ZENBAT PISATZEN DU ALBOKOAK?**

Normalizatutako beste joera bat: klubean denen bistara jartzea arraunlari guztien izen-abizenak, kilogramoak, argaldu beharreko zenbatekoa eta pisuan izandako gorabeherak. “Egin behar ez denaren adibide argia da, eta oraindik ere klub askotan egiten da”. Arraunlari askok, ordea, betidanik bizi izan dute hori, eta erabat barneratuta dute; barne-



ratuta daukaten bezalaxe pisaketak katzan zaizkienetan gosald, bazkaldu, edota are, afaldu gabe joatea “normala” dela. Ohikoa da pisaketak denen aurrean egitea. Larrinagak zehaztu du gizonekin ere dinamika horiek daudela, eta pena dutela ikerketa hau haiekin ere egin ez dutelako. “Asmoa dugu aurrerago zerbait egiteko, uste baitugu emaitzak antzekoak izan daitezkeela”, aurreratu du prestatzaile fisikoak.

Gorputz konposizioa analizietan 115 emakumeren likido erretentzioa ere neurtu dute, eta faktore horrek pisuaren presioa areagotzen duela ikusi dute: “Neskei gehitzen zaie likido extrazelularren eragina. Hilekoa dutenetan likido gehiago erretentitzen dute, eta beraiek badakite pisatzeko momentuan kilo gehiago izango dituztela. Entrenatzaileei esan diezaiekete eta ulertuko dute, baina arazoa da gain-presioa sortzen diela horrek ere”, dio Larrinagak. “Ez dira kontuan hartzen hilekoak eragiten dituen alerazioak, eta gorputz baten bizpahiru kiloko diferentzia agertu daiteke. Bizipenetik, ikusi ditut neskak kalkulatzan noiz tokatzen zaien pisaketa eta ea hilekoa izango duten; dinamika horiek beldurgarriak dira”, oroitu du Arbillaagak.

## EMAKUMEEI EGOKITUTAKO TRAINERUA?

Zergatik da hain inportantea traineru bat ahalik eta arinena izatea? Zertan nabaritzen da arraunlariak argalak diren edo ez? “Egia da arraunlariak ez gaituztela pisatzen [lehiatu ahal izateko], patroiak bakarrik, baina trainerua zenbat eta hondoratuago joan, orduan eta gehiago kostatzen da abiadura hartzen –potentzia kontuan izanda, betiere–”. Larrinagak azaldu duenez, lotura hori argi dute gizonen kasuan, nahiz eta ikerketa zientifikorik ez dagoen baieztatzeko, “arraunlari gero eta argalagoak daudela ikusten dugu”.

Emakumeen kasuan, “hasi berria” den kirola dela gogorarazi dute. 2008an lehiatu ziren emakumezko traineruen lehen estropada ofizialak, eta Kontxako Banderako estropadan soilik lau ontzik hartzen zuten parte 2016an kopurua zortzira igo zuten arte, gizonen pare. Nabarmena izan da azken urteetan lortutako arrakasta, liga desberdinak sortzeak erakusten duenez, baina oraindik palada asko falta dira gizonen baldintza eta errekonozimendura ailegatzeko.

Bide horretan, Patxi Leon arraunlari ohi eta Deustuko Unibertsitateko ikerla-



“Elikadurari lotutako portaera jakinak kirolean egotea arriskutsua da, baina muga hori igarotzea da benetan arriskutsuena; jokaera horiek egunerokoan erabiltzea arazoen aurre egiteko erreminta gisa”

**Erika Borrajo**

riak emakumeen materialari buruz egingandako ekarpena kontuan hartzeko dela diote bi kideek. “Eztabaida oso polita dago: ezinbestekoa da mutilen materialera egokituta ez dauden gorputz batzuk moldatu behar izatea? Ala trainerua moldatu behar da emakumeen fisio-miara egokitzeko?”. Larrinagak azaldu duenez, banku mugikorrek arraunean pisuaren arabera ontzi ezberdinak erabiltzen dituzte. “Tosta finkoko ontziak ere batezbesteko pisu jakinetara moldatu beharko lirake? Klubetik klubera hiruzpalau kiloko gorabehera dago, baina emakume eta gizonen artean desberdintasun nabarmena dago antropometriko ki, eta badaude ikerketak”.

Patxi Leonek eztabaida hori elikatzeko datu objektiboak neurtu ditu, eta ondorioztatu du gizonen ontzietan arraun eginda emakumeek lesioak izateko erraztasun handiagoa dutela: “Emakumezkoen altuera eta pisua gizonen aldean desberdinak direnez, traineruaren flotagarritasuna txikiagoa da, balantzarako joera handiagoa da, palada emateko keinua ezberdina izaten da, eta hortik lesio gehiago sor daitezke”. Emakumei gehiago kostatzen zaie trainerua kontrolatzea, ontziak oreka txarragoa duelako. “Hortik sortzen zaigun galdera zera da: benetan galdu behar dute pisua emakumezko arraunlariak? Begiratzen baduzu, talde sendoenetako gorputzak ez dira argalak, gorputz oso garatuak dira”, ohartu du Arbillaagak.

## FORMAKUNTZA ETA ZAINTZA

Emakumeen traineru lehiak urte gutxi dituenek, kirolera animatzen ari diren neskak ere gaztetxoak dira asko eta asko. Ikerketaren emaitzek erakutsi dute elikadura nahasmenak izateko arrisku handiagoa dutela gazteenek, eta Borrajok dio jendartearen isla dela hori. Kontuan hartzeko dela diote, 16 urtetik gorako jubenilek traineruen liga nagusietan parte hartzeko aukera dutelako, eta adin kritikoa izan daitekeelako.

Halere, uste dute arazoa ez litzatekeela konponduko traineruan sartzeko adina igota, eta azpimarratu dute ikusi



dutela presioa ez dela txikitzen maila baxuagoetan dauden arraunlariengan. Soluzioa formakuntzan dagoela sinesten dute: “Informazio hau transmititu behar zaie beheko kategorietan ari diren entrenatzaile, prestatzaile, nutrizionista eta arraunlarietara. Ahaztuta daude beheko mailak baina arriskua berbera da. Ezinbestekoa da pertsona horiek hezteko, gora heltzen direnean ikasita izateko eta euren gorputzekin duten harremana ona izateko”.

Arraunlarien ongizatea bermatzeko eta presio psikologikoak kudeatzeko,

formatutako profesionalak behar dira, ikertzaileen esanetan. “Ez da bakarrik entrenatzailea, baizik eta nutrizionista, prestatzaile fisikoa, medikua... Arazoa da klub batzuetan ez daudela figura horiek, eta entrenatzaileak hartzen dituela lan guztiak. Arazoa hor dago, edonork egiten duela profesional talde oso batek egin beharreko jarraipena”. Borrajok bereari ere begiratu dio: “Kirol psikologo bat inoiz ez dago soberan. Informazioa behar dute arraunlarietara, agian ez dira hain kontziente normalizatutako zenbait jarreraz. *Normaltasun* hori apurtzea

da lehen pausoa. Gero, beharbada, esku hartze espezifikokoak egin behar dira, taldea ezagututa eta argazki orokor bat izanda”.

### **ARRAUN MUNDUAN GOGOETA BULTZATZEKO**

Klub batzuk figura horiek txertatzen hasi dira, eta Kaiku eta Zumaiaren ikuspegi positiboa baloratu dute ikerlarietara: “Betaurreko sanitarioak dituen nutrizionista batek esku hartu du, eta zuzendaritza ulertu dute”. Arbillaga eta Larrinagak diote profesional eskasia ez dela baliabide faltagatik soilik, kontua dela “daukazu gutxi hori nola erabiltzen duzun”. “Baliabideak edukitzea zoragarria da eta gure aldarrikapena da formakuntza ematea eta sentsibilizazio kanpaina zabaltzea; psikologoek ere ekarpena egitea izugarria iruditzen zait. Baina baliabideak horraino iristen dira, oso mugatuta dagoen kirola da, ez baita batere profesionala”. Arbillagak argi du arraunean dagoen filosofia eta kultura direla aldatu beharrekoak, bizi izan baitu klub batean baliabide bereberekin egonda ere, entrenatzailearen arabera arraunlarien pisuak garrantzia handiagoa hartzea edo ez.

Arraunaren kultura bera da aldaketa behar duena? Galdera zaila dela dio Larrinagak, eta gizonen eta emakumeen





“Zaindu behar ditugu kirolariak, pertsonak bezala. Arrauna utzi eta gero ere pertsonak izaten jarraituko dugu, eta arazo psikologikoa sortzen badizu jasandako presioak, merezi izan al du kirol hori guztia egitea?”

### Beñat Larrinaga

arrauna bereizi behar direla. “Baina argi dagoena da kirol bat dela, arraunean egin dezakezula 30-35-40 urtera arte, eta gero bizitza oso bat daukazu. Zaindu behar ditugu kirolariak, pertsonak bezala. Gero ere pertsonak izaten jarraituko dugu, eta arazo psikologikoa sortzen badizu jasandako presioak, merezi izan al du kirol hori guztia egitea?”.

Arraunlariak pisuarekiko duten presioa pairatzen edota elikadura

nahasmenduaren arriskutik babesten dituzten faktoreak ere identifikatu dituzte, hala nola norberaren gorputzarekiko erakargarritasuna izatea eta autonomiaz jokatzeko gaitasuna azalera. Ikertzaileek proposatu dute balio horiek indartzea arraunlarien artean, joera osasuntsuak bultzatzeko.

Zaintza eta prebentzio ikuspegitik, ikerketarekin urak nahasi baino urak baretzeko erremintak eman nahi dizkiete arraunlariari, klubei eta entrenatzaile zein prestatzaile fisiko guztiei. Federazioek hasieratik jarritako interesa eskertu dute; Bizkaia, Gipuzkoa, Galizia eta Kantabriako federazioei bueltan eman dizkiete emaitzak. Hitzaldi informatiboa ere antolatu dute entrenamenduak hasi berritan, bertan erakutsitakoak datorren denboraldian kontuan izango direlako itxaropenarekin. Ikerketan parte hartutako arraunlari batzuek lehorretik ikusiko dute aurten estropaden dema, bidean arrauna utzi eta estroboak etxean apaingarri gisa zintzilikatu behar izan dituztelako. Beste batzuk, ordea, ontzira igotzeko gogoz egongo dira, estropaden emozioek mugituta. Bitartean, atzera begira boga arraunean jarraituko dute emakumeek, itsasoan ere tokia irabaziz. ●

ARGIA *Azoka*

**Egutegia 2024**  
Egunero efemeride bat




Prezioa **10 €**

### Agenda 2024

Baratzea · Fruitu baratzea  
Lore baratzea · Basoa

**Jakoba Errekondo eta  
Antton Olariaga**



Prezioa **15 €**

azoka.argia.eus

## LAU EGUNEKO LAN ASTEA

# Badaude motiboak, baina enpresariak ez dute nahi



FREEPIK

Lau eguneko lan astearen formula probaldian jarri zuten Valentzian joan den apirilean, lau astelehen jaiegun gisa kateatuta. Orain gutxi argitaratu dute balorazio-txostena, eta emaitzak agerikoak izan dira: langileen osasun mentalak eskertu du 32 orduko lanaldia. Estresa gutxitu da, lo gehiago egin, hobeto jan, normalean baino ariketa fisiko gehiago egin edota familia kontziliazioa erraztu –genero rola ere bistaratu dira, zaintza gehiago egin dute emakumeek–. Agerian geratu da, formulak badakartza hobekuntzak bere horretan. Dena den, enpresari handien gehiengo zabalari ez zaio burutik pasa ere egiten ideia. Areago, telelana desagertzea nahi dute.

**E**spainiako Gobernu osaketarako akordio interresgarria erdietsi dute PSOEk eta Sumarrek: lanaldia 38,5 ordura jaitsiko da 2024an, eta 37,5era 2025ean. Sektore publiko zein pribatuan eragingo du neurriak, azkenean aplikatzen bada jakina. Hego Euskal Herriko sektore publikoko langileek 35 orduko lanaldia daukate, eta hainbat sektoretako hitzarmenetan badituzte jada 37,5 orduko lanaldia ezarrita. Dena den, era orokortuan Espainiako Estatuan lanaldia murriztea bada pozteko motiboa. Duela 40 urte ezarri zuen Espainiak 40 orduko lan astea, eta orduetik ez da mugimendurik egin.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan proiektu pilotua jarriko du abian Eusko Jaurlaritzak datorren urtean. Ez modu orokortuan, eta detaileak fintzeko daude, baina zerbait egitea espero da bai Jaurlaritzan eta bai CCOO eta UGT sindikatuak sintonian daudelako Elkarrizketa Sozialerako Mahaian. Elkargunearen hirugarren hanka, Confebask patronala, ideia formulatu bezain pronto jaitsi zen barkutik.

Datorren urtearen hasieran batzartuko da berriz Elkarrizketa Sozialerako Mahaia, eta Valentzian egin denaren antzerako zerbait planteatuko dela aurreikusten da.

Probaldietatik harago joateko zailtasunak topatuko ditu bidean lau eguneko lan astearen balizko aplikazioak. KPGM inkestak-erretxeak Espainiako Estatuko enpresa handietako kontseilari ordezkariak galdekatu berri ditu, eta datu interesgarriak bistaratu dira txostenean. Kontutan hartzeko emaitzak dira, finean, enpresa handiek erakundeei presio egiteko duten gaitasuna bereziki azpimarragarria delako.

Hasteko, politikariek enpresari horiei egingo badiete kasu, ahaztu gaitezten lau eguneko lan asteaz: enpresa handietako kontseilariak produktibitatea igo nahi dute ordu kopuru bera egin da, eta bulegotik bertatik arituta gainera, etxetik lan egiteko aukerak ahalik eta gehien murriztuta.

Are gehiago, bulegora itzultzea “saritu” nahi dute. Inkestan parte hartu duten hamarretik bederatzi enpresari prest leudeke ordainsari gehigarriak eskaintzeko telelana utzi eta bulegora

## Valentziako probaldiaren ondorio sorta

### Osasuna

**%38<sub>k</sub>**

ohi baino ariketa fisiko gehiago egin du 32 orduko lanaldia edukita.

**%75<sub>ek</sub>**

esan du denbora gehiago egon dela lagunekin, baita umeeekin ere.

**%66<sub>k</sub>**

normalean baino lo ordu gehiago egin du.

### Kutsadura

**%58**

nitrogeno dioxido gehiago kutsatu da lan egin den bosgarren astelehenean besteekin konparatuta.

### Energia

**%30**

aurreztu da energia jai egin den lau astelehenetan.

### Kontsumoa

**%20**

gutxiago saldu dute komertzioek, eta igoera antzekoa izan dute, aldiriz, ostalaritzan.

bueltatzen direnei, haien aburuz, telelanak “dezente apaldu” duelako langileen produktibitatea.

Telelana desagertzea, gainera, ez dute zerbait utopikotzat jotzen. Hamarretik ia zortzi konbentzituta daude bulegoetara itzuliko direla langile guztiak hiru urteko epean.

#### ARNAS APUR BAT LANGILEARI

2.100 inkesta egin ditu Valentziako Udalak, eta probaldiaren txostenak bistaratu du lau eguneko lan asteak hobekuntzak

dakartzala langileen bizimoduan.

Osasuna eta ongizatea hobetu duela ondorioztatu dute, eta garrantzitsuagoa dena, langileek eurek ere horrela nabaritu dutela. Estresa dezente murriztu da –hamarretik lauk esan dute hori–, eta hobetu dira hainbat sentsazio, besteak beste nekeari, zoriontasunari eta satisfazio pertsonalari loturikoak.

Ariketa fisikoak eragina du norberaren ongizatean, eta agerian geratu da 40 orduko lan asteak nahi baino denbora gutxiago uzten duela kirola egiteko. Ho-

rregatik, inkesta bete duten hamarretik lauk esan dute ohi baino gehiago egin dutela ariketa fisikoa, batez ere 40 urte-tik beheragokoei, eta jendea ohi baino gehiago joan da natur gunee-tara.

Bestalde, ia denek denbora gehiago eskaini diote kultur jardueraren bat egiteari. Bitik batek normalean baino denbora gehiago pasatu du irakurtzen, eta hirutik bik esan dute plataforma digitalen telesailak edo filmak ikusten egon direla ohi baino gehiago.

Azkenik, bistakoa izan da gizonez-

## Lanaldia Europan (OCDE, 2022)

	Lan orduak urtean	Produktibitate indizea
<b>Italia</b>	1.694	102,8
<b>Irlanda</b>	1.657	218,4
<b>Espainia</b>	1.644	95,7
<b>Europar Batasuna</b>	1.571	100
<b>Frantzia</b>	1.511	114,8
<b>Danimarka</b>	1.372	121,9
<b>Alemania</b>	1.341	103,5

koen eta emakumezkoen artean egon den aldea. Gizonen erdiak esaterako, ariketa fisiko gehiago egin du –emakumeen kasuan herena inguru izan da–, eta zaintzari lotuta, justu alderantzizkoa da balantza.

### LAN ORDUAK ETA PRODUKTIBITATEA

Lan orduak, ongizatea eta lan-osasuna. Hiru kontzeptuak elkarri loturik daude. Eta enpresarien ikuspegitik bada laugarren puntu bat: produktibitatea. Frogaturik dago lanaldi luzeek lan-istripuak izateko aukerak areagotzen dituztela, eta horrez gain, Espainiako Estatuan hainbat txostenek bistartu duten moduan, lanaldi luzeak eta produktibitatea alderantziz proportzionalak izatera hel daitezke. Hau da, produktibitatea jaitsi egiten dela geroz eta lan ordu gehiago eginda.

Espainiar arazo larria dauka produktibitatearekin, eta Lan Ministeriotik sarritan esan dute azken urteotan lan ordu kopuruak jaitsi egin behar direla, baina ez da neurri nabarmenik aplikatu. OCDEk emandako azken datuen arabera, Espainiako Estatuan, batez beste, 1.644 ordu egiten dira lan urtean. Hain justu ere Alemanian baino 300 ordu gehiago. Eguretara ekarrita, zortzi orduko 37 lanegun baino gehiago dira horiek.

Danimarkan, esaterako, Espainian

baino 270 ordu gutxiago egiten dituzte lan, eta Frantzian 130 ordu gutxiago.

### PRODUKTIBITATEA: KEZKATZEKO MOTIBOA

Europar Batasuneko 27 estatukideek, batez beste, urtean 1.571 ordu egiten dituzte lan, hau da, Espainian baino 70 ordu gutxiago. Aldiz, produktibitateari erreparatuta, Eurostat-en arabera, Europako batez besteko produktibitate indizea 100 puntukoa baldin bada, Espainiakoa zifra 95ean dago. Frantziarena, berriz, 114an.

Erreparatu orain beste aldeari: Irlandako produktibitatea 218koa da, altuena alde handiz, eta Espainiako Estatuan egiten diren antzerako lanaldiak dituzte, zertxobait gehiago. Aldiz, Luxenburgon, Espainian baino 200 ordu inguru gutxiago egiten dira urtean, eta produktibitatearen indizea 163koa da.

### SATISFAZIO LABORALA

Produktibitateari estuki lotua dago lanera “gustura” joatearen ideia, satisfazioa dei geniezaioketena. Gustu txarrez joatea gauza bat da, eta bestea Covid-19aren ostean zabaldu den *Dimisio Handia* deituriko fenomenoak: langileek beren lana borondatez uzteko joera da, lanean gustura ez daudelako edota eskaintzen zaizkien baldintzak eskasegiak iruditzen zaizkielako. Kapitalaren-tzat krisi bihur daitekeen kontua da.

Arrazoi horiexengatik lana uzten dutenak zifretara ekartzen dira aspal-ditik. Bada, lan egitearen “satisfazioa-ri” erreparatuta, Espainiako Estatuko datuak beldurgarriak dira, 2001etik izan dituen okerrenak, eta EBko herrialdeekin konparatuta, nabarmen txarrenak. Eurostat-ek egindako azken txostenaren arabera, Espainiako Estatuko lau langiletik batek adierazi du “atsekabe handiz” joaten dela lanera. EBko batez bestekoa, hamarretik bat pasatxo da.

### OSASUN MENTALA JOMUGAN

Ezbairik gabe, lanpostua eta lana kudeatu eta jasateko erak eragina du langileen osasunean. Osasunaren Mundu Erakundeak informatu izan du gaiaren inguruan. Horrez gainera, hainbat institutuk esana dute enpresak lehiakorrakoak direla haien langileen osasun hobe baldin badute.

Espainiako Lan Ministerioaren txostenaren arabera, azken urtebetean hamar langiletik bederatzik esan dute estresa jasan dutela –12 milioi eta erdi biztanle dira horiek–, eta hamarretik lau estresaturik bizi da era jarraitu batean. Estresa, oro har, 45 urtez azpikoetan gertatzen da, bereziki emakumezkoetan. Denbora falta argudiatzen dute gehienek, eta nekea eta lo falta ere bai. Hamarretik zortzik arazoak ditu familia kontziliaziorako. ●





## Ekoedizioa

# Nola murriztu liburuak sortzen duen kutsadura

Duela urtebete sortu dute Ekoedizioaren Institutua Katalunian, paperezko argitalpenek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak gutxitzeko asmoarekin. Ekoedizioak bete beharko lituzkeen hamabi irizpide zehaztu ditu institutuak, eta liburuak ekoeditatua dela ziurtatzen duen zigilua ere sortu du. Europar halako zigilua kudeatzen duen institutu bakarra da. Kataluniaz haratago ere sortu du interesa proiektuak. ARGIA duela hilabete batzuk hasi da liburuak ekoedizio moduan argitaratzen eta Kataluniako Ekoedizioaren Institutuko bazkideen artean Euskal Herriko aurrena da.

 IRATI IRAZUSTA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**B**adakigu maiz ez dela jasangarria kontsumitzen ditugun produktuak sortzen diren lekutik gure etxera iristerainoko bidea, ingurumenaren ikuspegitik. Produktu ekologikoak ditugu elikagaietan eta arropetan, elektrogailuetan kaltea gutxitzeko programak daude eta garraio publikoa edo bizikleta erabiltzeko aholkatzen digute, norbera bere autoan ibili beharrean. Baina badakigu irakurtzen ari garen liburuak zein bide egin duen gure eskuetara heldu aurretik? Badakigu zenbat kutsatu duen hura sortu eta garraiatzeak?

Galdera horri tiraka hasi ziren ikeritza liburu baten arrasto ekologikoa Pol·len argitaletxeko kideak, duela hamabi urte; ikerketa horien ondo-

rio dira ekoedizioaren kontzeptua eta proiektua. Argitaletxea sortu aurretik Bartzelonan inprenta bat zuten: El Tinter kooperatiba. Ingurumen zientziak ikasten zituen ikasle batek bertan egin zuen gradu amaierako lana, han sortutako produktuek ingurumenean zuten inpaktuaren ingurukoa. Kooperatibako kideek aurrez ez zuten uste kutsatu egiten zutenik; emaitza bestelakoa izan zen, ordea: “Zikin batzuk zarete eta okerrera da ez zaretela konturatu ere egiten”. Hala ondorioztatu zuen ikasleak, Jordi Panyella Pol·len-eko kideak dioenez.

“Inprentan ingurumen-kudeaketarako sistema jarri genuen martxan, eragiten genituen kalteak aztertzeke. 2011n sortu genuen Pol·len, proba-

tzeko zer egin genezakeen papereko argitalpenek ahalik eta gutxien kutsatzeko, eta 2015ean inprenta itxi egin genuen”. Pol·len-ek Europako dirulaguntza bat jaso zuen liburuaren bizizikloa ikertzeko, lehengaiak lortzen direnetik hasi eta liburuak amaitu arte. Ondorioztatu zuten kalterik handiena lehengaiak eraztean sortzen dela, hain zuzen, %49,4; horren atzetik honako prozesuetan kutsatzen da gehien: inprentako xaflak sortzean (%17,6), banaketan (%16,4) eta diseinu fasean (%9,6).

Datu horiek kontuan hartuta sortu zuten ingurumen-kalkulagailua 2012an, argitalpen batek aurretik duen inpaktua kalkulatzeko. Paraleloki, Comanegra argitaletxeak *llibre local*

zigilua ere sortu zuen, argialetxeek adierazteko haien produktuak tokiko baliabideekin egin zituztela. Bi argialetxeak elkartuta, 2022an Ekoedizioaren Institutua (Institut de l'Ecoedició) sortu zuten Katalunian, "liburu ekologikoaren aldeko esfortzuak bateratzeko asmoarekin", Laia Figueres institutuko zuzendariaren arabera. Zerbitzu-kooperatiba bat da, batez ere argitalpenen sektoreari zuzendua. "Ikertzen jarraitzea da gure helburua, ekoedizioa bizirik dagoen konzeptua delako". Horrez gain, sektoreko eragileei errekurtsioak eskaintzen dizkiete enpresaren erabaketan ingurumen arloa kontuan har dezaten.

## EKOEDIZIOAREN IRIZPIDEAK HAMABI PUNTUTAN

Institutuak ekoedizioak bete behar-ko lituzkeen hamabi irizpide zehaztu zituen, liburuaren bizi-zikloaren azterketa oinarri hartuta: tokiko ekoizpena izatea; paper birziklatua edo FSC ziurtagiria duena erabiltzea; karbono-aztarna kalkulatu eta emaitza komunikatzea; ekodiseinua erabiltzea; parte hartzen duten eragileek ingurumen-kudeaketa bermatzea; tintak aukeratzean ingurumen kalteak kontuan hartzea eta toner tinten arriskuak jabetzea; inpresio egokiena aukeratzea, izan *offset*-a edo digitala; gailu elektronikoen ingurumen-inpaktua kontuan hartzea; inprentako xaflak, akaberak eta paketatzeak ondo aukeratzea; tiradak aztertzea; obra-lizentziak kontuan hartzea; eta, azkenik, energia-hornidura jasagarria erabiltzea.

Hamabi irizpide horietatik lehenengo hirurak betez gero, institutuak liburu ekoeditatuaren zigilua ematen du. Erabakia, ordea, ez du hartzen institutuak berak, hirugarren eragile batek baizik.

Institutuko zuzendaria lehen baldintzen garrantziaz aritu zaigu: "Tokiko inprimatzea da lehen baldintza, azterketan ikusi baikenuen ingurumenean eragin handia duela produktua inprimatzen den lekuak eta haren ondorengo ibilbideak: banaketak, bidaiak... Horregatik, argitalpena banatzen den lekuan inprimatu behar da. Horrekin tokiko ekoizpenaren sarea ere babestu nahi genuen".

Bigarren irizpidea paperari dagokiona da: paper birziklatua edo FSC papera erabili behar da. FSC-k *Forest*



ARGIAN, irailetik aurrera argitaratutako liburu guztiek daramate ekoedizioaren zigilua eta zama ekologikoaren oharra.

Ikertzen hasi zirenetik paperean eta tintan egin dituzte aldaketa esanguratsuak

*Stewardship Council* esan nahi du (Basko Nabigazio Kontseilua); irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere siglak daramatzan paperak ziurtatzen du produktu hori egiteko erabili den papera baso jasagarrietako zuhaitzetatik datorrela.

Hirugarren baldintza da argitalpen bakoitzak ingurumenean duen eragina adierazi behar duela produktuan bertan, irakurleak horren berri izan dezan. Honako bost datuak adierazten dira etiketan: karbono aztarna, sortu-

riko hondakina, eta uraren, energiaren eta lehengaien kontsumoak. Komunikazioari garrantzi handia ematen diote ekoedizioa ezagutarazten ari diren garai honetan. Pol-len-eko kideari garrantzitsua iruditzen zaio irakurleek argialetxeen jarrerak ikuskatu ahal izatea. "Horregatik sortu genuen motxila ekologikoa; garrantzitsuena ez da zigilua bera, baizik eta irakurleak ingurumenean alfabetatzea".

## KALTEA AURREIKUSTEKO TRESNA

Horrez gain, zigiluko bost puntu horietan zenbat aurreztu den ere adierazten da, argitalpen estandar batekin alderatuta. Kalkulu hori ingurumen-kalkulagailuaren bitartez egiten da –artikuluaren hasieran aipatutakoa–. Kalkulagailua sortu zenetik eguneratu egin dute, eta aldagai gehiago sartu dizkiote. Ekoedizioaren Institutuarena da, eta bazkideei aukera ematen die argitalpen batek ingurumenean eragingo duen inpaktua kalkulatzeko, produktua egin aurretik. "Tresna horri esker, eragileek aukeratu deza-

## Sei liburu ekoeditatu ditu ARGIAK

railetik hona argitaratutako sei liburuak ekoeditatu egin ditu ARGIAK eta seirek daramate ekoedizioaren zigilua: *Ilargia eta landareak agenda*, *Hausnarrean* eta *Planeta prekarioan* argitaratu berriak eta *Bizi baratzea*, *Sendabelarrek dakitena* eta *Etxeko landareak* berrargitalpenak. Ibilbide baten hasiera izan da, baina ez da hutsetik abiatutako bidea. Liburuak eragiten duten aztarna ekologikoari buruzko kezka duela urte batzuetakoa da. Hain zuzen, Bizi Baratzea ildoko langileek duela zortzi urte aurkitu zuten interneten liburuen aztarna ekologikoa neurtzen zuten kalkulagailu bat. Aztarna ekologikoaren garrantziaz jabetuta, eta irakurleei begira gardentasun ariketa egiteko asmoz, hainbat urtez *Ilargia*

eta *landareak* *agendan* aztarna ekologikoari buruzko oharra argitaratu zen. Halako batean, interneteko kalkulagailua ezin erabili gelditu zen ARGIA: pasahitza eskatzen zuen. Xerka aritu ondoren, kalkulagailuaren arduradunekin egin zuen topo ARGIAK, hain zuzen ere, Kataluniako Ekoedizioaren Institutuarekin.

Joan den abuztuan harremanak hasi, informazioa bildu eta institutuko bazkide egitea erabaki zuen ARGIAK. Bazkide egin eta ekoiztutako liburuek ekoedizioaren zigilua eramatea ez da paper bat betetzea. Erreportaje honetan azaltzen diren pausoak eman ditu ARGIAK. Ezinbestekoa izan da eta izango da hemendik aurrerako liburu guztietan Antza inprimategiarekin orpo orpo lan egitea.

Ekoizpen bakoitzean, ARGIAri eta Antzari etxeko lanak egitea eskatzen die, baita ahalegin ekonomikoa ere.

ARGIAK liburu bakoitza argitaratu aurretik bi galdera hauei erantzuten die: Zein izango da liburu honen aztarna ekologikoa? Eta nola murriztu dezakegu? Aztarna gutxitu badaiteke, neurriak hartuko dira. Bistan da aztarna erabat ezin dela ezabatu, eta berebiziko garrantzia du kutsadura mailaren berri liburuaren erosleek izatea. Zigiluak betetzen du egiteko hori.

Hilabete gutxiko ibilbidea egin du ARGIAK. Bazkide egin berri eta sei liburu ekoeditatu ditu. Datozenetan ere, ariketa bera egingo du, zalan-tzarik gabe. Dagoeneko aldizkaria ekoeditatuta argitaratu dadin lanean ari da ARGIA.

kete kalterik txikiena eragingo duen diseinua. Esate baterako, paperaren neurriak”, dio Panyellak.

Ikertzen hasi zirenetik bi materialen egin dituzte aldaketa esanguratsuak: paperean eta tintan. Gaur egun ekoeditatutako argitalpenetan erabiltzen duten paperak ez du klororik, eta tinte dagokienez, lehenago mineralatik eratorritako tintak erabiltzen zituzten; orain, landare-jatorrikoak. Hala ere, argitalexeko kidearen ustez

ez dago tinta ekologikorik, ezta liburu ekologikorik ere. “Liburu ekologikoa ez da existitzen, beti izango du eragin negatiboa ingurumenean. Aitzitik, kulturalki eragin positiboa du, eta horregatik jarraitzen dugu liburuak egiten”.

### KATALUNIAK BESTE LURRALDEETARA

Gaur-gaurkoz institutuak 21 bazkide ditu (tartean ARGIA); gehienak Kataluniakoak dira, eta erakunde publikoe-

kin ere ari dira elkarlanean, esate baterako Bartzelonako Diputazioarekin eta Enpresa Kulturalen Kataluniako Institutuarekin. “Hala ere, Kataluniatik kanpoko eragile askok jo dute gugana informazio eske”, zuzendariak baieztatu duenez. Epe ertainean argitalexte eta inprenta gehiago batzea nahi lukete, “geroz eta argitalpen gehiagok izan dezaten ekoedizioaren zigilua eta, horrekin, geroz eta irakurle gehiago kontzientziatu daitezten”. ●



# Komunera joateko gogoia ongi gestionatzen al da zuen eskolan?

Eskola eta institutuetan, ikasleek beti ez dute komunera joateko aukera, pixagura, kakagura, egarria, hilekoa... duten unean; arau malguagoak eta zorrotzagoak daude, hainbat ikastetxetan giltzaz ixten dituzte komunak, erabilera desegokia argudiatuta. Gaiari tiraka, debekuez, kontrolaz, zigor kolektiboez, intimitateaz, mugitzeko beharrak eta gorputzek eskolan duten lekuaz, espazioak (eta ikasleak) ulertzeko moduez... hitz egiten amaitu dugu.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  SHU OTERO

**10** -12 urte inguruko gaztea gurasoarekin agertu zen Milder Labari pediatriaren konsultan (izena aldatu diogu): aurrez gernu infekzioak izan zituela kontatu zuen, aurrekari horiekin pixari eusteak berriro ere infekzioak sor diezazkiokela-eta, beharra zuenean komunera joateko medikuaren baimen idatzia nahi zuen, eskolara eramateko. “Surrealista iruditu zitzaidan horrelako zerbait sinatu behar izatea, ez al zuen horretarako baimenik?”. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari galdetu diogu, eta honako erantzuna jaso dugu: “Jakina, komunera joan beharra daukanak joateko eskubide osoa dauka. Hori esanda, ikastetxe bakoitzak erabakitzen du gaia nola gestionatu, sen ona erabilia”. Eta sen onak dio, Agurtzane Martinez irakaslearen hitzetan, oinarritzko premiak asetzea funtsezko elementua dela haurraren garapen harmonikoa eta ongizatea bermatzeko, “eta eskolak behar horiek asetzen direla zaindu behar du”. “Horiek ongi ase ezean, nekez ariko gara lanean zentratuta eta irakasleak nahi adinako gogoeta burutsuetan”, egin du oharra Nora Salbotx irakasleak.

Zer gertatu ohi da? Ikasleak txikiak direnean behar fisiologikoak proiektu pedagogikoaren ardatz direla, baina adinean gora egin ahala garapen kogniti-

“““

Mezua garbia da: ‘Ez zarete gai kudeatzeko zuen behar fisiologikoak modu egokian eta helduok erregulatu behar ditugu’; autonomia sustatu beharrean, dependentzia”

## Agurtzane Martinez

boak eta jarduera akademikoak hartzen dutela lehenasuna, eta bigarren mailan geratzen direla behar fisiologikoak: “Helduek erregulatzen dute noiz erantzun behar zaien behar horiei jarduera akademikoa ez oztopatzeko, ikuspegi helduzentrista gailentzen da eta behar horiek asetzeko dauden espazioek haien aukera hezitzailea galtzen dute”, kritikatu du Martinezek. Arautzeak mezu argia transmititzen die haur eta gazteei: “Ez zarete gai kudeatzeko zuen behar fisiologikoak modu egokian eta helduok

erregulatu behar ditugu; autonomia sustatu beharrean, dependentzia”.

“Nola jokatzeko dugu helduen behar fisiologikoekin? Zergatik orduan muga gehiago jartzen dira haurren kasuan?”, dio Mireia Centeno psikopedagogoak. Lantokietan komunera joateko orduak mugatuta egongo balira edo atea giltzaz itxiko balitz, eskandalagarria litzateke. “Irakasle batzuen iritziz, klase erdian komunera joatea errespetu falta bat izan daiteke eta horregatik mugatzen dute. Eskolan konfiantza nahikoa egon behar-ko luke ikasleak behar duenean komunera joateko. Egia da, ohitura moduan, egokiena dela klasea hasi aurretik edo ondoren joatea, baina batzuetan ezin dugu, eta halakoetan ez luke zertan arazorik egon”, uste du Centenok.

Batez ere institutuen estiloak kezkatzen du Amelia Barquín irakaslea: “Sentiberatasun bat garatzen ari da haurrekin, bereziki txikienekin, baina bat-batean ikuspegi erabat aldatzen da, institutura salto egin eta arau murriztaileak itzelak dira. Jakin nahiko nuke, adibidez, arau gisa zenbat institututan ez den posible ikasgai eta ikasgai artean komunera joatea, zenbatetan itxaron behar den atsedenaldira arte komunera joateko, ez bada zerbait larria. Familia bat ezagutzen dut gaztearen gosaria aldatu behar izan zuena, likido gutxiago

hartzeko, bestela ez zelako atsedendira iristen. Guk geuk, irakasleok, ez diogu hiru orduz atsedendira arte eusten, komunera joan gabe! Pentsatzen dut norbaitek, klasean daudela, premia duelako komunera joatea eskatzen badu baimena emango zaiola, baina araua sarri da atsedendira arte ikasgelatik ez ateratzea, ikasgaien artean ere ez (zarata, mugimendua... argudio). Gazteak, adin horretan, hiru orduz ikasgelan eserita izatea atsedendira arte zer nola-ko erabakia da? Irakasleok guk geuk ez dugu betetzen”.

### SEGURU PIXA EGITERA DOALA?

“Ez doaz pixa eta kaka egitera, haizea hartzeko aitzakia da”: horra komunera joateari mugak jartzeko argudioetako bat. “Utzi komunera, ura edatera eta gisakoetara, bai, doike! Baina baita,

“ ”

Utzi komunera joaten, ura edatera eta gisakoetara, baina baita mugitzeko, luzatzeko, burua oxigenatzeko ere. Zerk pentsarazten digu paseo hori hezitzailea ez denik? Zaintzaren pedagogiari ekarpenik egiten ez diogunik?”

**Nora Salbotx**

mugitzeko, luzatzeko, deskonektatzeko, freskatzeko, burua oxigenatzeko, paseatzeko edo, bertzerik gabe, bertze gelatan zertan ari diren kuxkuxeatzeko beharra badugulako, are haurrek eta nerabeek. Zerk pentsarazten digu paseo hori hezitzailea ez denik? Zerk zaintzaren etikari eta pedagogiari ekarpenik egiten ez diogunik? Ez dezagun ahantzi gure gorputza jartzen dugula hezkuntza prozesuaren baitan”, aldarrikatu du Salbotxek. Beharbada galdera ez da zergatik doazen komunera behar fisiologikoak ez diren beste behar batzuk asetzerara, baizik eta bestelako behar horiei erantzuteko espaziorik ba al dagoen eskolan: “Ez dago intimitatean norbere buruarekin eta besteen begiradatik urrun lasai egoteko lekurik ikastetxeetan”, gogoratu du Barqufnek, “eta komuna bihurtzen da ihesbide”. Halako espazioen faltan, “oso



zilegi da komunera joatea pribatutasun horren bila edo mugimenduaren beharra asetzera”, uste du Martinezek.

Mugitzeko beharra duenak ere, komunarako bidea egin nahiko du agian, eta hori galaraztearen atzean sarri beldurra dagoela dio Barquínek: “Joaten direnean nora doaz, zer egingo ote dute, zer egingo dugu ez badira itzultzen? Baina gure mugikortasuna denon artean negoziatu daiteke ikasgelan; noiz mugitu, zertarako, nola eskatu...”. Kasu honetan ere, fokua aldatu daiteke: galdetu beharrean ea zilegi den mugitu nahi eta horretarako komunera joatea, galdetu dezakegu ea zilegi den hainbeste denboraz aulkian eserita izatea ikasleak. “Haur Hezkuntzan, mugikortasunak ia erabat askea dela dirudi, eta adinean aurrera egin ahala, murrizten doa askatasun hori –nabarmendu du Barquínek–. Haur baten komentarioa gogoan dut oraindik, Lehen Hezkuntzara pasa zelarik aitona-amonek galdetu ziotenean eskolan zer moduz: ‘Oraindik jesarrita’. Gizajoak uste zuen bolada bat izango zela”. Luis Larrañaga Gorputz Hezkuntza irakasleak argi utzi zuen, *Non dago gorputza eskolan?* mahai-inguruan (Larrun, 227): “Ikasleek mugimendu beharra ez dute aseta. Batzuek eskolaz kanpoko ekin-

“”

Kontrol zorrotzarekin, zein espektatiba transmititzen dugu? Zugandik espero da gaiztakeria bat, eta gaiztakeria bat egingo duzu, komuneko papera komun zulora botako duzu; soluzioak ezin du izan zigor orokorra”

### Amelia Barquín

tzak egingo dituzte, baina egunero ikas-tetxean ordu ugari pasatzea eta ordu horietako gehienak eserita egotea ez da egokia. Gorputza berez prestatuta dago mugimendurako, ez orduak eta orduak eserita egoteko, eta horrek ondorioak ekartzen ditu”.

### KOMUNAK, GATAZKA EREMU?

“Ez doaz pixa egitera” argudioari beste batzuk ere gehitu ohi zaizkio, komunaren erabilera zorrotz arautzeko: ikasleek klaseko argibideak galtzen dituzte, komunak zikindu edo puskatzen dituzte, istiluak gertatzen dira...

Komuna gatazkarekin lotzeari hainbat erpin ikusten dizkio Barquínek. Batetik, “komunaren kontrol zorrotzak atzean mezu bat du: espazio hau ez da zuena, ez duzue espazio honetan eragiterik, eta espazio bat propio sentitzen ez duzunean, berau zaintzeko arrazoi gutxiago duzu; aldiz, espazio bat zenbat eta partekatuagoa izan, erasorako gutxiago erabiliko dela eta beste giro bat gailenduko dela iruditzen zait”. Gainera, institutuetan oro har “ez dago adierazpen publikorako aukerarik ez kanalik: pintaketa bat egitea edo kartel bat jartzea gatazka bide da berehala, eta batzuetan premia horien eskapea da helduen begiradatik salbu dagoen leku horretan pintaketa egitea, edo ekintza disruptiboa, erasokorra, kaltegarria”. Azkenik, komunaren erabilera dela-eta helduei jarriko ez genizkiekeen arauak gazteei

jartzeko, zein ikuspegi dago gazteen inguruan? Zein espektatiba komunikatzen eta transmititzen dizkiegu? “Bada, aurreko guztia batuta, eta Pigmalion efektua tarteko, espektatiba horiek batzuetan bete egiten dira, zugandik espero da gaiztakeria bat eta gaiztakeria bat egingo duzu, komuneko papera komun zulora botako duzu, eta atzetik dator zigor orokorra: komuna ixtea, edo paper gehiagorik ez jartzea komunean, eta papera behar duenak atezainari eskatu behar dio. Pentsa, atezainari adierazi behar izatea, adin horretan, kaka egitera zoazela eta papera behar duzula; etxetik papera ekartzen amaituko du hainbaket”.

Komuna oker erabiltzen denean, pertsona bat komunera behin eta berri joaten denean... gazte horrekin hitz egin behar da, “eta ziur hala egingo dela, baina irizpideak ezin du izan debeku eta zigor orokorra”, dio Barquínek. Komunak ixtea ez baita arazoari aurre egitea, eta gatazkak beste leku batzuetan ere sortzen direla gogoratu du Centenok: “Ezin ditugu tokiak mugatu gatazkak sortzen direlako, batez ere beharrezko tokiak izanik. Ratioak hobetu beharko lirakeke, ikasle asko eta hezitzaile gutxi dagoelako, laguntzeko eta presente egoteko”. Gasteizko alde zaharrean, Ramon Bajo eskolan, aldaketa arkitektonikoa egin zuten komuna desbinarizatzeke (mutilak eta neskek ez banantzeko), eta aldi berean, leku segurua dela bermatu dute: komunak gelaxkak ditu, bakoitza bere atearekin, eta lababoen lekuan, espazio partekatuan, kristala dago, alegia kanpotik ikusi daiteke espazio hori. Segurtasunaren premia eta intimitatearen beharra gestionatzeko modu on bat izan daiteke.

Nola kudeatu komunak eskolan? “Pertsona arduratsuak izateko autonomia, errespetua, konfiantza bizi behar dugu, okertu behar dugu eta handik ondorioak atera, ikasi, garatu –dio Martinezek–. Konfiantza espazio horiek ez baditugu eta araua bada daukagun ipar bakarra, autorregulazioaren bidea moztuko dugu eta beste ikaskuntza batzuk aterako ditugu (araua saltatzea, estresa, beldurra, haserrea, espazioen zaintza ez egitea...)”.

“Institutuko komun batean, atez bertzalde nuen lagunaren instrukzioei segika, ikasi nuen tanpoiak erabiltzen –kontatu digu Salbotxek–. Uste dut begirada feministatik gaur den egunean problematizatzen ari diren hezigunee-





DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

tako espazioen zerrendan sartu behar-ko genituzkeela komunak ere (patio, korridore eta ikasgelekin gertatzen ari den modu berean). Goazen pentsatzera bada, denon artean, nola bilakatu espazio horiek ez baztertzaille, hezitzaile eta, zinez, komun”.

### MEDIKU IKUSPEGIAK ZER DIO?

Pixari denbora gehiegi eusteak maskuria dilatatu dezake eta ondorioz pixagura antzemateko sentsibilitatea txikitu; gernu-aparailu guztiari eragin diezaiokete eta adibidez ekar dezake gernua ongi ez hustea pixa egiterakoan. Kakarekin berdin gertatzen da, baina kolona da dilatatzeko dena. “Enkopresia asko ikusi ditut pandemiaren geroztik;

haurrak fisuraren bat izan badu, defentsiboki eta intuitiboki eutsi egiten dio kakari, eta kronifikatu egin daiteke”, azaldu du Maider Labari pediatrikari. Hala ere, garbi utzi du hainbeste denboraz eustearen iturburua ez dela eskola, psikologikoa izan ohi dela eta familiak desegituratzen direnean, bortizkeria jasan dutenean... azaleratzen direla joera horiek umeengan. Guk galdera zuzena egin diogu: pixa eta kakari eustea ona ala txarra da? “Eutsi behar diozun denbora zenbatekoa den, horren arabera; ordu batez edo biz ari bagara ez da ezer gertatzen, baina zenbat likido edan duzun, horrek ere baldintzatzen du. Dena den, esfinterraren kontrola zerbait soziala da (ez naturala), ani-

Gatazkaren bat egon delako komunak ixtea ez da arazoari aurre egitea, gure solaskideen hitzetan. Gatazkak beste leku batzuetan ere sortzen direla gogoratu du Mireia Centenok: “Ezin ditugu tokiak mugatu gatazkak sortzen direlako, batez ere beharrezko tokiak izanik”.

maliek ez dute berdin jokatzeko. Beraz, galderaren erantzuna konplexuagoa da eta sozialki barneratuta ditugun jokabideez aritu beharko ginateke”.

### ETA GUZTIAREN ERDIAN, GORPUTZA

Behar fisiologikoetatik hasi eta erreportaje honetan zehar jorraturiko gaiak bete-betean gurutzatzen dira gorputzaren sunarekin, gorputzari eskolan ematen (ez) zaion lekuarekin eta garrantziarekin, gorputzek espazio eta dinamiketan uzten (ez) duten arrastoarekin. Haurrek adinean aurrera egin ahala, gorputza alde batera utzi eta nagusiki burmuin bilakatzen dira ikasgelan. “Hezkuntza sistemak pertsonak buru hutsera murriztu nahi baditu ere”, burua eta gorputzaren batasunaren, osotasunaren, bereizi ezintasunaren ideia autore ugari azpimarratu dutela gogoratu du Salbotxek: “Mario Lodik ‘dekapitazio’ hitza erabiliz salatzen zuen joera hau, eta azpimarratzen zuen pertsona fisiko unitarioa garelako, gorputza behar duena eta erabiltzeko eta haren bitartez solas egiteko eskubidea duena”. Globaltasun hori natural biziko bagenu, espresuki gorputza landu beharrik ere ez genuke izango, dio Eider Salegi irakasleak, aurrez aipaturiko mahai-inguruan: “Dena bat garelako baldin badiogu, eskolan egiten ditugun planteamenduek premisa horretatik abiatu beharko lukete”. ●

**MARCOS**  
skindegia

**Benetako  
antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**DATU PERTSONALEN BABESA  
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu

**SIGACUS**

© 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

**LUA**arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA  
[www.luark.com](http://www.luark.com)  
948132697 - Arga ibaiak kalea 28-30 Iruña

# ETORKIZUNA ORAINEAN EREIN



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

**O**rain dela gutxi, galdetu zidaten ea beti tristuratik idazten dudan. Ziur aski, neurri batean, hala da. Akaso, ez da tristura, ez beti, bederen. Zenbaitetan, izan daiteke kezka; bestetan, haserre edo malenkonia; hainbatetan, itolarria... Hori horrela izanik, saiatzen naiz argia ematen panorama ilunari, badagoelako zerekin gozatu eta zer elikatu.

Dena den, ezin dut ezkutatu basoari urrutitik begiratutakoan, itomenak hartzen nauela, gehienbat gaurko gazte eta umeen etorkizuna irudikatzean; eta kosta egiten zaidala gogoratzea zein ederrak diren pagadien bazterretan jaiotzen diren lili delikatuak.

Uste dut, bakoitzak bere erara, denok bizi ditugula kezkak: klimari ezarri diogun aldaketatik humanitate deshumanizatura. Hala ere, beti dugu mantra bera airean: *ezin dugu ezer egin eta bizitza gozatu behar!* Biziraupenaren legeak horrela agintzen digu. Baina ez al dago errealitatea ukatzeko nahi bat horren atzean? Ez al gaitu mantrak anestesia-tzen?

Errealitate mingotsaren aurrean sensibilitate apur bat daukana eta ekin-tzaren bidez bere egonezinari bidea ematen diona, segituan patologizatzen dugu. *Eko-antsietatea* azaldu da eta *elikaduraren nahasmendua* omen du janari biologikoa bakarrik jaten duenak.

Non dago arazoa, ordea, eguneroko egoera klimatikoari bizkarra ematen dion bizitzan ala klima-aldaketaren eraginak nabaritu eta arintze aldera talde ekologistetan edo lurraldearen defentsaren aldeko taldeetan parte-hartzean? Non arazoa, produktu kimikoz, antibiotikoz eta petrolioz hazitako elikagaiak



jatearen naturalizazioan ala jaki osasuntsuak eta osasungarriak jateko erabakian?

Horien ifrentzua ere bada, jakina: obsesioa. Ezin dugu geure burua behin eta berriz zigortu. Ez baikara ahalguztidunak, ez baita ardura geure-geurea bakarrik. Jendarte antolaketa eredu jakin batek bideratzen du gure bizitza, hori horrela izan dadin. Agonia horretan ez itotzeko bideak askotarikoak izan daitezke; besteak beste, informazioa eta taldearen babesa funtsezkoak dira bizi dugun egonezina bideratzeko eta desesperantzaren atzaparretan ez erortzeko.

Ni hirugarren batek ere mugitzen nau. Gertu gertukoa bezain unibertsalak: gazteen eta haurren etorkizuna.

Ezin planeta kiskaltze prozesua naturalizat hartu, ez baita hala, baizik eta

hemen eta orain daramagun bizimodu suizidaren ondorioa. Zoritxarrez, lehenago edo beranduago, hona ere helduko da irudi bortitzak grabatzeko eguna; ez badiogu errealitateari heltzen, eta, behingoz, ez baditugu erabakiak hartzen orain eta egunero.

Horregatik ezin zorrotzagoak izan behar dugu arduradun politiko eta teknikoekin. Exijitu behar diegu gazte eta haur horien etorkizun bizigarria ekarriko duten erabakiak hartzeko. Gure egunerokotasunean ahalik eta koherenteen jokatu behar dugu bizitzarekin, gazte eta haurren planeta aurreikusten den labea ez izateko, non janaria eskuratzea izango den kaosaren apeta.

Gazteen begietan ikusi nahiko nuke neure burua etorkizunean, oraingoaz lotsatu gabe. ●



## A ZE FAUNA!

# EZAGUTZEN EZ DUGUN BIZILAGUNA



**IÑAKI SANZ-AZKUE**  
ARANZADI ZIENTZIA  
ELKARTEKO KIDEA

**E**uskal Herrian dauden sugandila espezieetatik, gizakiaren begietara arruntena da horma-sugandila. Arre kolorekoa da batzuetan, berde puntu batekin besteetan, eta aldeetara eta bizkar gainean, marra edo orban ilunak izan ohi ditu. Sugandila guztiak bezala, hatz luzeak ditu, eta ezkaitez babesturiko gorputz arina, isatsaren laguntzarekin mugimendu azkarrak egiten laguntzen diona.

Arrunta izanagatik, ordea, ezin esan espezie ezaguna denik. Sugandilak maiz ikusten ditugun arren, ez baitiegu arreta askorik jartzen, ez herritarrok, ez ikertzaileok ere, kosta egiten baitzaigu mehatxatua ez dagoen horri begiak jartzea. So egingo diegu, agian, arrak udaberriko borrokekin hasten direnean, edota haiekin jolasean dabilen umeak isatsa kendu eta behin gorputzetik ba-

natuta nola mugitzen den behatzen diotanean, baina... ezagutzen al dugu horma-sugandila?

Horma-sugandilak, izenak dioen bezala, hormak ditu gustuko, eta hargatik, gure etxe, baserri edota inguruko paretetan gehien ikusten dena da. Basoko argiguneetan, ezpondetan, egur artean edota zelai ertzetan ere ikus daiteke. Burua zapala du, baina muturra ez puntaduna, zirrikitu handi samarretan sartzeko adinakoa. Horma-sugandilak, ezkutalekua bilatzen du gune horietako zuloetan eta jana inguruetan. Zomorrojale amorratua baita.

Narrasti guztiak bezala, beroaren premia izaten du gorputza berotzeko eta egunari ekiteko. Hala, bero hori eguzkitik jaso dezake, eta horretarako, zapal-zapal eginda topatuko dugu eguneko lehen izpiekin, denbora ahalik eta gu-

## HORMA-SUGANDILA *Podarcis muralis*

**TALDEA:** Ornoduna / Narrastia

**NEURRIA:** 7 cm inguru isatsik gabe.

**NON BIZI DA?** Baso, harkaizti, belardi eta eremu urbanoan.

**ZER JATEN DU?** Ornogabe txikiak.

**BABES MAILA:** Europan babestua.

txianean, ahalik eta azkarren berotzeko asmoz. Ektotermoa denez, bero horrek lagunduko dio gorputza aktibatzen eta orduan hasiko da ehizan, jan bila, indartzeko eta udaberriko ugal garaiari aurre egiteko.

Udaberrian, arrek lekurik onena hartu nahi izaten dute. Leku egutera, babeslekuekin harrapakarietatik ihes egiteko, baina era berean, jatena ugaria duena. Beraz, ez da harritzekoa arren arteko borrokak ikustea, haien artean hozkaka, norik tokirik egokiena lortuko. Arrautzak jartzeko, horma zaharretako arrakala lehorrak erabiliko dituzte, edota harri eta enbor azpiak. Eta hala, tamaina oso txikiko arrautzatxoekin busti gabe iraungo dute baina beharrezko hezetasun minimoarekin. Bertatik sortuko dira sugandila oso txikiak, jada gurasoen beharrik izango ez duten narrasti independenteak.

Europa hegoaldeko herrialdeetan ikus daitekeen espeziea da horma-sugandila. Mediterraneo aldean, altueran gora jo behar izaten du behar dituen baldintzak bilatzeko. Hala, ez da harritzekoa Iberiar penintsulako leku askotan horma-sugandila mendi garaietan baino ez aurkitzea.

Espezie arrunta izanagatik, interesarekin begiratu beharrekoa da. Europa mailan babestua, baina gutxi ikertua da gurean. Izan ere, espezie mehatxatuei arreta jarri izan diegun bitartean, ezezaguna zaigu askotan arruntenen egoera. Hargatik, etxeko ondoko horman sugandila ikusten duzun aldiro, gogoratu, espezie horrek merezi duela begirada bat, segundo bateko behaketa, sikiera, gure ingurumenaren parte dela guk ere sinesteko. ●



IÑAKI SANZ-AZKUE

# BANILLA LEKATXOA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



**T**otonaka kultura mexikarra da eta elezahar eder bat badute: banilla landarearena. Tzacopontzi-za (Goizeko Izarra) printzesaren odoletik jaio zen banilla, non eta Tonoacayohua (Uztaren Jainkosa) gurtzen zuten apaizek Zkatan-Oxga (Orein Gaztea) printzearekin harrapatu eta burua ebaki zieten tokian. Printzea zuhaixka indartsu bat bilakatu zen eta printzesa aihen edo liana hauskor eta samur bat, zuhaixkari goxo heldu eta bertan gora egin zuena. Aihen hori da banilla eta harrezkeru totonakek banillari "*caxixanath*", lore ehizatua, esaten diote.

Egia da, banilla aihen igokari batek ematen du, orkideo igokari batek (*Vanilla planifolia*). Ameriketako lur emankor haietan sortutakoa dela diote. Gero egin zuen mundu guztiko lurralde tropikaletarako zabalkunde bidaia. Hobeto esanda berari bururatu ere ez litzaioke egin-go mundu tropikal osora hedatzea, ez

dago burutik eginda eta gutxiago jorik.

Banilla espezia preziatua bilakatu zen europar aberatsentzako eta geuk hedatu genuen irabazpidearen negozioa. Baina ez zen erraza izan. Banillari kentzen diogun etekina fruitua da, leka usaintsu bat. Banilina da usain berezi horren osagai nagusia. Leka hori sortzeko lore hermafroditen aieka emera iritsi behar du aieka arraren polenak. Lan hori, polinizazioa, euli eta erle jakin batzuek egiten dute; intsektu horiek eginkizun horretara jarrita daude eta banillaren lorea ere prest. Baina uztartze hori bere jatorrizko lurraldeetan besterik ezin da gertatu. Banilla landarea munduan batera eta bestera eraman zutenean ez zen ulertzen zergatik ez zuen fruiturik ematen: lorea eman eta eman eta leken arrastorik ere ez. Aldiz, Mexikon, tropiko heze beroko fruiturik emankorrenatzat dute. Gaur egun badakite eskuz polinizatzen, eulirik behar izan gabe: lorea pixka bat

zanpatze hutsa nahikoa da lan hori egiteko eta Madagaskar, Tahiti, Indonesia eta abarretan lantzen da.

Banilla naturala baino askoz ere errazago, merkeago, egiten da sasi banilla edo banilla sintetikoak, alde handiz askoz ere gehiago erabilia. Egun paper fabriketan sortzen diren hondakinetatik ekoizten da banilina gehiena. Baina bere usaina oraindik urrun dago banila naturalarenetik. Gaur dakigunez, honek 169 osagai ditu (esterrak, hidrokarburoak, aldehidoak, alkoholak, alifatikoak, zetona, terpenoak, fenolak, urrintsuak eta heteroziklikoak) eta horien saltsak sortzen duen usaina ederki bereizten du sintetikotik.

Agi danean, usain paregabe hori leka edo fruituaren barruan dauden haziak jan eta han eta harago barreiatuko duen animalia limurtu eta erakartzeko sortua da, itxuraz berak jan eta zirineta "ereindako" hazia errazago ernetzen baita: sazugar mokofina. ●

**Izaro Artoita**  
Irudiak: Josevsky

# Lina Plastilina

★ Istripu handia ★

elkar  
elkarargialetxea.eus

Liburu honen barruan bidaia, zirkuan bizi izango naiz aldi batean; eta ondoren, itsas bidaia arriskutsu batean abiatuko naiz!

## SENDABELARRAK

## ZERGATIK EZ ERABILI ANIMALIEKIN?



GARAZI ZABALETA

railaren bukaeran sendabelarren inguruko formakuntza berezia egin zuten Azpeitiko Azoka plazan. Azken urteotan sendabelarren inguruko interesa, ezagutza eta horien erabilera handitzen ari badira ere, abeltzaintzan ez da zabalduegi dagoen praktika. Hain zuzen horregatik, lehen abiapuntua jartzeko asmoz antolatu zuen formakuntza saioa nekazaritza ekologikoa sustatzen duen Biolur elkarteak. Sendabelarrek abereengan izan ditzaketen erabilera desberdinen inguruan hausnartzen eta informazioa partekatzen hasteko hitzordua izan zen Azpeitiko, eta Biolurreko Ane Rivas albaitaria eta Garbiñe Larrea aditua izan ziren bertan.

**BEHARRAK IDENTIFIKATZEA, LEHEN LANA**

“Abeltzaintzan dauden beharrak detektatzea izan zen lehenbiziko lanetako bat, ikusten baikenuen abereetan ere, pertsonekin bezala, oso medikalizatua dagoela osasuna, eta horren monopolioa farmaziako medikazio alopatikoaren gain dagoela ia erabat”, azaldu du Larreak. Beste bide batzuk lantzeko, ordea, baliabide eta ezagutza falta zegoela sumatu zuten, eta bertako praktika seguru eta eraginkorrik topatzea zaila zela. Horregatik ekin zioten gaiaren inguruan ikertzeari eta materiala biltzeari, saioa pixka bat prestatze aldera.

“Nik pertsonen esparruan egin dut lan beti, eta hasieran pentsatu nuen, ‘zer eginen dut nik sei hankako zomorroekin?’. Baina gero ohartu nintzen, anaia herri kirolean zaldiekin aritzen zenean, abereak sendatzeko lan dezente eginak geneuzkela, nahiz eta ez albaitari mailan izan”, dio. Abeltzainen partetik interes handia dagoela argi ikusi da, formakuntzarako 30 lekuak segituan bete baitziren. Bertan, hainbat abere izaten dituzten ohiko arazoak identifikatu zituzten: hanketako minak, ugaltzearen bueltan sortzen diren



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

arazoak, errapeetako minak, erditzeen ondorengo ahuleria, zauriak eta kozkorrak, ugaritzen ari diren birus eta bakterioen arazoak...

**OINARRIZKO BOTIKINA**

“Material bilketan ikusi dugu Hegoameriketara badirela albaitarien hainbat praktika sendabelarrekin, hainbat erabilerak badarabiltzatenak, eta ikusi dutenak baliozkoak direla”, azaldu du Larreak. Medikuntzako beste baliabideekin batera, eta osagarritasunaren ikuspegitik, horiei lekua egitea izan da formakuntzako helburua. Bildutakoek euren abereentzako oinarrizko botikina sortu zuten, orain pixkanaka probatuko dutena. “Erredura, zauri, handitu eta horrelakoetarako erremedioak landu ditu-

gu, haien eguneroko arazoentzat botikina sortzeko”, gehitu du.

Larreak azaldu duenez, maiz, giza-kientzat erabili izan diren formula askok animalientzat ere balio dute, nahiz eta horientzat, normalean, olio finaren partez manteka eta horrelakoak erabili izan diren. “Barne erabilerari dagokionez, hemen ez da transmisio on bat egon, eta sektorean ez daude elkarren arteko informazio trukaketarako espazio gehiegi. Pixkanaka horrelakoak sortzeko eta informazioa biltzeko beharra dago”. Praktika eta erremedio desberdinak biltzen eta sistematizatzen aritu dira, balekoak direnak ezagutu eta zabaltzeko. “Jarraipena izango du honek, abeltzainak probatzen doazen heinean, jasoko dugun erantzunak lanketarekin segitzeko balioko du”. ●

‘SAKONEAN, ITSASOA IKUSTEN DA’

## *Familia baten erbestea eta herrimina, miangolarratarren historia ahaztua argitara*

Askok bezala, gerrak jo zuen Miangolarra Gorostiza familia. Deserrian, litografia enpresa sortu zuten, eta dirutu ziren. Euskal Herrira itzulirik, baitezpadakoa gertatu zen haien dirua Federiko Krutwigek *Vasconia* idatz zezan, edo Ez Dok Amairuko kantariak diskoak graba zitzen. Eta, hala ere, eta beti, isilean haien izena: Miangolarra. Gaitz erdi, haien eginak argira ekarri ditu Patxi Zubizarreta idazleak.

 MIEL ANJEL ELUSTONDO

**H**edabideetan nahizu-nahizu dabil Patxi Zubizarreta Dorronsororen (Ordizia, 1964) izena. Ez alferretan, irabazi berriak ditu -iazko Lizardi saria jasotako *Zerria* idazlanarekin-, Espainiako Haur eta Gazte Literatura Saria, eta, modalitate berean, Euskadi Literatura Saria. Merezimenduok irabazirik ere, ordea, han eta hemen dabilkigu bestelako lan bat, argitaratu berria, aurkezten: *Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarratarren uberan* (Txalaparta, 2023). Miangolarra Gorostiza familiaren historiatic tira eginez, gure idazleak Euskal Herriaren historiaren zati gorde ezkutua ekarri digu argira.

Erbesteak markatutako familia baten historia da miangolarratarrena. Joserra Senperena musikariak halaxe utzi du labur idatzirik Zubizarretaren liburuaren kontrazalean: “Bidegabekeria handia iruditzen zitzaidan 1940ko hamarkadan erbestera joandako [Miangolarra Gorostiza] familia haren berririk ez izatea, batez ere beren negozioen ondusunak herri baten kultura sustatzeko

erabili eta gero. Patxi Zubizarretaren liburua gure historiaren zati txiki bezain gogoangarri bat ezagutzeko aukera izan daiteke eta, bide batez, munduan zehar bizi izandako familia baten abenturak gozatzeko ere bai”. Hortxe, beraz, familiaren ibiliaren gakoak, eta liburuarenak: erbestea, ondasunen erabilera, geure historia, abenturak... Eta osagaiok bildu, eta ondu du lana idazleak, orain baino lehen bi narraziootan egin zuen bezala: *Julien Vinsonen hegaldia* (Elkar, 2019), eta *Hiru gutun Iruñetik* (Pamiela, 2012). Biotan egindako bideak lagundu dioke oraingo honetan.

### **ERBESTEALDIA**

Miangolarratarrak, finean, Frantzisko Miangolarra eta Maria Asuntzion Gorostiaga senar-emazteak, eta bost seme-alabak dira: Luz, Laura, Mari Fe -hamar urteko zela gaixorik hila-, Augusto eta Frantzisko *Pako*. Hala ere, liburua irakurrieran jabetuko garenez, senideetan gazteenak, erran delako Pakok, bereganatuko du protagonismo kasik osoa.

Gernikan jaio ziren bost haurrak, Arratzuan jaioa zuten aita; Ibarrangelukoa, berriz, ama. Haatik, ez zuten denboraldirik egin jaioterrian, Frantzisko Miangolarra -itsas-kapitaina, lanbidez-Pasaiako portura destinatu baitzuten. Eta, Zubizarretak adierazi digunez, “aitaren atzetik, Donostiara etorri zen familia osoa. 1936ko gerra lehertu zenean, berriz, erbesterako bidea hartu zuen familia, askok bezala, eta Gernika eta Baiona ibili zituzten babesleku”. Eta, dakigunez, 1939an, artean Espainian gerran zirela, Baionan ziren miangolarratarrak.

Zerutik jakina da Bidasoaz bestaldeak iheslariz gainezka egin zuela. “Sosegatu ezinarekin batera, izua zen nagusi”, idatzi du Zubizarretak, erbestealdi urrutikoa iragarritz: Amerika. Lehenengo, Parisera egin zuen familia, pasaporte-bisatuak inguratu nahirik. Hurrena, asilo eskubidea eskatu zuten AEBetan, Mexikon, Argentinan eta Venezuelan. Inondik ere, azken herrialde horrek baizik ez zuen ontzat hartu miangolarratarren eskaera, eta halaxe heldu zen familia Caracasera.



Bi senidek, Luzek eta Augustok, Los Caobos ikastetxea sortu zuten Caracasen. Hori baino handiagoa egin zuten etxeko bi gazteek, Augustok eta Pakok. Litografia bat abiarazi zuten, eta lan franko, eta ona, egin: 1949an, esaterako, Venezuelako mapak egiteari lotu zitzaizkion Kartografia Nazionalaren eskariz. Ondoko urtean, Venezuelako mapa osatu zuten. Hurrengoan, geologia mapak egiten hasi ziren Meategi eta Hidrokarburu ministerioarentzat. Eta segi: "Sustapen ministerioaren babesean, esne ontziak aztertzeari eta garatzeari ekin zioten eta Envases Internacional S. A. sortu zuten", AE-Betatik inportatzen zituzten ontzien kalitate bereko produktua, eta %10 edo 20 merkeagoa. "Horren ondotik, Augusto eta Paco anaiak Rotograbado Comercial firma ere sortu, eta zigarro, aluminiozko eta freskagarrietarako ontziekin jarraitu zuten", irakurri dugu Zubizarretaren liburuan... Hitz batean, miangolarratarrek dirutu egin ziren Venezuelatan.

### ABERTZALEAK

Euskal komunitate indartsua zen garai hartan Caracasen, hango herrialdeak hartu zituen iheslari gehien, eta 1942an bertan, eratu zuten Eusko Etxea. Eta, handietan handi, Jose Antonio Agirre lehendakaria ere bertan izan zuten 1959ko Aberri Egunez. Haatik, Jaurlaritzak ordu arte egindakoa baino gehiago nahi zuten Venezuelako

## Aita gurea, euskara

Venezuelako erbestetik Donostiara itzulirik, Pako Miangolarrak lagun egin zuen Krutwig Biarritzen, eta lagun, era berean, Marc Legasse. 1960ko hamarkadaren hasiera orduko, sortua zen KLM (Krutwig, Legasse, Miangolarra) hirukoa, diktaduraren kontra eta Euskal Herriaren alde zerbait baino gehiago egin nahirik.

Miangolarraren eta Legasseraren adiskidetasunaren –eta heterodoxiaren– lekuko, Legasseraren honako poema aldatu du Patxi Zubizarretak *Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarratarren uberan* liburura:

*Gure aiten hizkuntza  
gogoetan zarena  
garbi ezazu gure herria  
ager bedi zure indarra  
nausi bedi euskara  
etxean bezala enparantzan ere.  
Emaiguzu gure buruan  
askatasunaren ogia  
ez gaitzazu utz erortzen  
erdararen tentaldian.  
Baiña erdalkeriaren gaitzetik  
aska gaitzazu.  
Halabiz.*

euskaldun askok, eta, 1960an, *Karakas'ko Agiria* argitaratu zuten zenbait abertzalek. Sinadurarik ez, nahiz Jose Estornes Lasa eta Augusto eta Pako Miangolarra ez ziren, nonbait, aparte ibili. Delako agiriak "Aberri, Euskara ta Azkatasuna" zuen goiburua, eta Zubizarretak idatzi duenez: "Euzko Aberri Jaurlaritza berri baten aldeko aldarria zen, Espainiako balizko Errepublikatik aparte, Vaticanoak erakutsitako jokamolde zapaltzailetik urrun, eta Euskal Herri osoaren aldekoa: *'Ikusirik Españak euskotarroi ekarri eta geure gaztedi ederrena ondatu zigun gudu gogorraren ondoren ogei ta iru urte igaro diran-arren ezertarako ere ez dirala izan euskotarron alegin eta ekiñaldi guztiak...'*". Borrokarako deia zen, gehiago nahi zuten batzuek. Espainiarekin zeharo hautsi, adibidez.

Abertzale gogorrak ziren erbestean. Behin, miangolarratarrek ikurrina paratu zuten beren litografian.

Beste behin, 1962an, Euskal Herrira itzultzeko erabakia harturik ordurako, eta Espainiaren enbaxadan bisatua eskaturik, akusazio gorriak egin zituen enbaxadoreak, Espainiako Estatura sartzen galarazteko asmoz: separatista amorratuak omen Miangolarra anaia biak, Caracaseko Eusko Etxeko ekitaldi guztietan parte hartzen omen zuten, hiriburuan Espainiako banderak erretzea antolatu omen zuten, eta etengabe jarduten omen zuten Espainiaren izen ona belzten...

## ITZULERA

Itzuli ziren, hala ere. Miangolarra anaia biak Donostian ziren 1960ko hamarkadaren hasieran. Anaietan gazteena, Pako, Donostian bezain-beste zen Bidasoaz bestaldeko herrietan, eta, esaterako, Biarritzen ezagutu zuen Federiko Krutwig, hau Belgikako erbestetik itzulia. Eta diktadurari eta errepresioari behar bezala aurre egin nahirik, Paco Miangolarrak Federiko Krutwigengan ikusi zuen bidea seinalatuko zuen intelektuala. Horrelaxe sortu zen *Vasconia* obra. Zubizarretak idatzia da: “Krutwigek hamaika lan linguistikoa, literario eta politiko idatzi zituen, baina guztien artean agian *Vasconia* izeneko saiakera kontraesankor bezain konprometitua nabarmendu daiteke, eta eginkizun hartan Paco gertatu zen bultzatzaile nagusia (...) ezinbesteko borrokaren alderdi programatikoa eta ideologikoa *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad* obran gauzatu zen”, 1963an Parisen argitaratua, Fernando Sarrailh de Ihartza seudonimoarekin.

Eta, gisa berean, Herri Gogoa diskoetxe klandestino sortu zuen Paco Miangolarrak, Iñaki Beobide lagun zuela, eta “Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Mikel Laboa, Antton Valverde, Xalbador... igaro ziren handik, baina Donostian inor gutxi du Herri Gogoa diskoetxearen eta Paco Miangolarren lanaren berri”, Zubizarretaren arabera betiere.

Eta, hain zuzen, ezezagutza horixe edukiz betetzera dator *Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarratarren uberan* liburua, ez dakienak jakin dezan... ●

## "Iragana ez da monolitikoa"

Narratzaile fina da Patxi Zubizarreta. Bide handia egin du literaturan, haur eta gazte istorioak idazten, helduentzako literatura, itzulpenak egiten... Oraingo liburu honetan ere, eta miangolarratarrek helburu zituela, ezin literaturaren bidetik aparte ibili.

**Zazpi kapitulu ditu zure lan honek, eta, atal bakoitzaren hasieran, itsasontziren bati loturiko istorioa irakurriko du irakurleak. Batean, Goizeko izarra; bestean, Cuba. Noiz Winnipeg, noiz Francoren Azor...**

Itsasontzien simila erabili dut, bai: Miangolarratarrek *Goizeko izarra* ontzian itsasoratu ziren, *Île de France*-n Ravel pianista, *Winnipeg* kargaontzi zaharrean ehunka errefuxiatu bildu zituen Pablo Nerudak, “poema eder baten antzera...”. Elkarrizketek erakutsi didate iragana ez dela monolitikoa, gertakari beraren oroitzen askotarikoak eta kontraesankorrak direla, eta Echenozek, Barnesek, Buñuelek, Kallifatidisek lagundu didate historia hobeto kokatzen eta sinesgarriago egiten. Izenburua, adibidez, Vicente Huidobroren hilobiko hitzetatik dator...

**Miangolarratarren historia bistaratu ahal izateko,**

**elkarrizketak egitera jo behar izan duzu, ezinbestean.**

Bestelako iturri askorik ez baitago. Bai, elkarrizketa izan dut baliabide nagusi, eta Miangolarra familiako senideekin batera, Eneko Irigarai eta Iñaki Larramendi elkarrizketatu ditut. ETArek sorreran parte hartu zuten biek, eta biek ezagutu zuten [Pako] Miangolarra. Horiekin batera, hainbat pertsonak eman didate lekukotasuna: Jose Angel Irigaray, Benito Lertxundi, Iñaki Anasagasti, Eugenio Ibarzabal... Benetako plazera izan da, eta ikasgai ederra.

**Miangolarratarren lan hau egin beharra zegoen...**

Bai, bada! Garai hura bizi izan zuten militanteen artean-eta, ez dago Krutwig *Vasconia* irakurri ez zuenik. Baina inork ez daki Paco Miangolarrak finantzatu zuela: filantropoa izan! Edo Herri Gogoa diskoetxea ere, Pakok abiarazi zuen -bere etxebizitzaren gaineko bizitzan, Donostiako Gros auzoan-, Iñaki Beobidek lagunduta, eta behar ziren gailuak erosita. Eta Jon Miranderen poemak ere, Paco Miangolarrari esker heldu zaizkigu. Historia harrigarria da Miangolarra Gorostiza familiarena, oro har, eta Pakorena [Miangolarra], bereziki.



## Nafarroako

Bertsolari Txapelketa  
2023

Finalaurrekoa

**AGOITZ**

Azaroak 11, larunbata  
17:30ean, Kultur Etxean



Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Idoia Granizo Uribarrena, Ekain Alegre Gil, Julen Zelaiaeta Iriarte eta Urko Gartzia Aleman

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eneterreaga

Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)



# Gerra Hotza eta Erromatar Inperio baketsua




NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**kialde Hurbila, K.o. II.-III. mendeak. Erromatar Inperioak 1.000 kilometro inguruko defentsa lerro bat osatu zuen ekialdeko *limes* edo muga zaindu eta persiar armadaren nahiz tribu nomaden erasoei aurre egiteko. Lerro hura iparraldetik hegoaldera luzatzen zen, Palmiratik egungo Turkia hegoalderaino. Edo orain arte behintzat hipotesi hori nagusitu da, Antoine Poidebardek egindako argazki eta prospekzioetan oinarrituta.

Antoine Poidebard (1878-1955) jesuita frantziarra airetik arkeologiaren aitzindaria izan zen. Lehen Mundu Gerran hegazkin biplano bat pilotatzen aritu ondoren, 1920ko hamarkadan, egungo Siria, Irak eta Jordaniaren gainean hegan egin zuen arrasto arkeologikoen bila. Airetik ehunka argazki atera eta 116 egitura erromatar identifikatu zituen, ustez aipatutako goitik beherako defentsa lerroa osatzen zutenak. Lurra hartuta, egitura horietako batzuetan prospekzioak egin zituen, eta K.o. II. eta III. mendeetako datazioak lortu zituen, ustezko gotorlekuak Erromatar Inperioaren garaikoak zirela baieztatuz. Lan horien guztien emaitza 1934an argitaratu zuen *La Trace de Rome dans le desert de Syrie* izenburuko lanean.

Gerra Hotz betean, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, CIAko satelite espioiek eremu horretako milaka argazki atera zituzten. Satelite espioen munduko lehen programa abiatu zuten AEBetatik, Corona sateliteei esker, lehenik, eta Hexagon sateliteak erabiliz aurrerago. Hala, erresoluzio handiko irudiak lortu zituzten. Dokumentu horiek desklasifikatuta, irudiok arkeologoen esku daude orain. New Hampshireko (AEB) Dartmouth unibertsitateko ikerlari talde batek, Jesse Casana arkeologoa buru, argazkiak aztertu ditu, eta, orain arteko hipotesia guztiz aldatu du, *Antiquity* aldizkarian argitaratutako emaitzen arabera.



Antoine Poidebardek 1920ko hamarkadan egungo Siria, Irak eta Jordaniaren egindako airetik argazkietako batzuk, erromatar garaiko egiturak erakusten dituztenak.

## KONTRAKO HIPOTESIA

Arkeologoek beste 396 egitura identifikatu ahal izan dituzte CIAren argazkietan, gaur egun airetik ikusi ezin daitezkeenak, azken bospasei hamarkadetan gehienak estalita geratu baitira eraikin berrien eta nekazal ustiapenen ondorioz. Eta egitura horiek ez dute iparraldetik hegoalderako lerroa osatzen, Poidebardek esan bezala; identifikatu berri dituzten egiturak Tigris ibaiaren arroraino iristen dira, mendebaldetik ekialderako bidea eginez.

Oraindik lan asko dago egiteko, argazkietan ikusten diren egitura guztiak garai hartakoak direla baieztatzeke indusketak *in situ* egin beharko baitituzte. Baina, bitartean, Jesse Casanaren hitzetan: “Egitura horien banaketak iradoki digu ez zutela mugako harresi modura

funtzionatzen, ez zirela persiarren eta nomaden erasoak geldiarazteko dorre eta gotorlekuak. Egin ditugun aurkikuntzek beste hipotesi batera garamatzaite: eraikin horiek eskualdeen arteko merkataritza, komunikazio eta garraio sistema baten parte ziren, karabanatan oinarritua”. Eraikinek, besteak beste, bidaiariei ostatu hartzeko eta hornitzeko aukera ematen zieten, baita ganbeluak eta ganadua hidratatzeko ura ere.

Horrenbestez, Inperioko ekialdeko probintzien eta Erromaren menpe ez zeuden lurraldeen arteko harremanak estutzea eta merkataritza bermatzea zen egitura horien helburua. Muga ixtea baino, irekitzea zen asmoa. Hala, Gerra Hotzeko espioitza lanek Erromatar Inperioaren muga uste baino baketsuagoa zela erakutsi dute. ●



LIBURUA

# Esan gabekoak, gaizki esanak, berba gehiegikeriak



ELKAR

## ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN

OLATZ MITXELENA

ELKAR, 2023

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

gartza saria jasota, liburu hau da Olatz Mitxelenak argitaratu duen lehenbizikoa. Hamar errelatuk osatzen dute *Arrain hezur bat eztarrian* materiala; izenburu iradokitzaile eta portada erakargarriak ongi etorria egin eta sorpresaz betetako kutxa aurkituko du irakurleak orriotan.

Errelatuak beraien artean desberdina izateagatik hari komun bat dute: eztarrian esan gabe geratzen diren hitzek, ahora pasa gabe trabatuta geratzen diren pentsamenduek, isiltasunek, komunikazio faltak eta gaizki-ulertuek harremanak baldintzatzen dituzte, aldatu, apurtu eta deseroso bihurtu. Errelatu bakoitzean, ordea, estrategia desberdina erabiltzen du autoreak pertsonaien arteko arrakala erakusteko:

Alde batetik, pertsonaien barne munduan murgiltzen gaitu autoreak. Pertsonaiek pentsatu eta sentitzen dutena urruti dago esan eta egiten dutenarekin. Horrela, irakurleak informazio osoa duen arren, pertsonaien artean amildegia emozionala, fisikoa, nola gertatzen den ikusiko dugu. Honen adibide dira *Paperezko gorputzak*, *Hori dena zor dizut* edo *Botanika ikastaroa* ipuinak.

Bestetik, egoera itogarriak aurkezten dizkigu autoreak pertsonaien arteko ulertu ezin hori girotzeko. *Behe lainoa* edo *Katuka* ipuinetan min fisikoa, botaka, kiratsa, ustela hitzak aurkituko ditugu. Nazka eta egonezina nahasten dira. Eta *Oinordetzak* ipuinean ere irribarre batek pertsonaiari eragiten dion nazka eta egonezina agertuko dira.

Gorputz barruetan gertatzen dena

kanporantz egiten dutenarekin kontraesan dago ipuinetan. Hauetako batzuetan autoreak egiten duen fantasiaren erabilerak egia eta gezurraren arteko mugak lausotzen ditu. Eta, gainera, kontatu duena benetan gertatu ote den zalantzan jartzeko gaitasuna dute.

Errelatu batzuek sorpresa eragiten dute, angustia, itolarria, amorrua, angustia. Barrea eragiten duenik ere bada, ironia fina erabiltzen baitu autoreak sarri. Ez dago epel utzi nauen istoriorik hala ere. Eta izugarri gozatu dut hitzek kontatzen dutenaz gain, esan gabe geratzen direnek iradoki didaten guztiaz ohartuta, hautatzen dituen irudien bostereaz konturatuta. Loturak eta jolasak oso ongi josi ditu eta oso liburu borobila dela esango nuke. Hurrengo zain gertaruko gara, Olatz! ●





MUSIKA

## Bikain bertسیونatutako klasiko bat



E. MORENO ESQUIBEL

### MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**R**omeo eta Julietaren istorioa klasiko unibertsala da, modaz inoiz pasatzen ez dena eta denek ezagutzen dutena. Opera batean islatzeko istorio ezin hobea. Bitxia da hain libreto eder eta ezaguna duen opera bat, eta gainera Gounoden aberastasun melodikoaren musika duena, ez dela gehien antzeztutako horietakoa. Halaxe da, zoritxarrez.

Baina zorrea izan dugu eta OLBEren 72 denboraldiaren hasierarako opera-errepertorioko harribitxi honekin egin dugu topo. Batez ere bikote protagonistaren kalitateetan oinarritzen den harribitxia, zalantzarik gabe Bilbon arrakasta handia izan duena.

Opera honek ezingo luke funtzionatu aparteko distira ez duten bi bakarlariarekin. Porrot egingo luke. Baina OLBEk bikote bikaina aurkeztu du, ez soilik bakarlari bakoitza halakoa delako, baizik

eta bien arteko elkarrekintza bereziki elektriztzailea izan zelako.

Romeo OLBEko entzuleen artean oso ezaguna eta oso miretsia den Javier Camarena tenore mexikarrak interpretatu zuen, ahots tinbre bereziki ederra du, eta naturaltasun handiko emisioa. Horrek aukera ematen dio bere interpretazioei naturaltasun eta sinesgarritasun berezia emateko. Izugarritzko freskotasuna eman zion Romeori. Bere agudo, garbi eta errazek entzuleak maitemindu zituzten.

Nadine Sierra soprano apartak eman zion bizia Julietari. Lehen aldiz aritu zen OLBEren eta erabateko arrakasta lortu zuen. Eta oso merezia. Bere ahotsaren nagusitasuna eta biribiltasuna erakutsi ziotuen. Bere adierazkortasun erraztasunari esker, abeslariak aura berezi bat eman zion pertsonaiari. *Je veux vivre* edo *Air du poison* bezalako arietan ahozabalik utzi gintuen. Publikoak abeslaria txalotu zuen

### FITXA

**OLBEK ANTOLATUTAKO GOUNOD-EN ROMEO ET JULIETTE OPERA.**

**BAKARLARIAK:** Nadine Sierra, Javier Camarena, Andrzej Filonczyk, Marko Mimica, Anna Alàs Jové, Fernando Latorre, Alejandro del Cerro, Ixaro Mentxaka.

**NOIZ:** Urriaren 21ean.

**NON:** Bilboko Euskalduna Jauregia.

antzeppenaren amaieran gutxitan bezala.

Gainerako bakarlariak oso maila onean aritu ziren, baina, zalantzarik gabe, Anna Alàsen aktuazioa nabarmendu beharko litzateke. Stefano pertsonariari bizia eman zion mezzoa da, ahots bikainarekin, tinbre ederrekoa, eta interpretazio-grazia bereziarekin. *Que fais-tu blanche tourterelle* oso momentu txalogarria izan zen.

Giorgia Guerrak diseinatutako ekoizpena atsegina izan zen, oro har, eta irtenbide eszeniko eraginkor eta azkenaldian nahiko ohikoa dena prestatu zuen: hiru panel handiren gaineko proiektzioak eta une dramatikoaren arabera komenigarritzat erabiltzen zen erdiko bloke mugikor bat (dorrea, logela, kapera...). Irudien segida erakargarria izan zen estetiko-ki (beirate gotikoak, plano arkitektonikoak...), eta osotasuna ondo konbinatu zen obran zehar. ●



# Nigandik kanpo bezala

AINHOA MARIEZKURENA ETXABE  KHEA ZIATER

**P**ertsonaia edo egoera bat antzezte da eszenatoki gainean eroso egoteko baldintzarik errazena. Gidoia jarraitzen duen aktoreak zein ikuslea entzuteko prest dagoela dakienak ez du beldurrik; adrenalinak hartzen du haren gorputza eta garuna. Baina zu izango bazina guztion begirapadean dagoena?

Winona eta Grace baldintza oso desberdinetan dauden bi aktore dira. Bata ospetsua da eta lanik ez du falta; bestea, ordea, saiakeran baino ez da gelditu. Obrak famaren pisua eta lortu ezin duenaren zama nahasten ditu, artisten mundu idiliko eta mitifikatua irudikatu, baina hemen inor ez dago kontentu. Pertsonaiek hori bera kritikatu nahiko dute euren gris koloreko bizitzetaz hizketan eta bakoitza bere argudio eta bizipenetatik abiatuta.

Senarrak haur moduan tratatzen duen bizitza hutsaleko etxeko andreak eta bikotekideak berarekin ezkontzeko eskatzea desio duen kafetegi bateko zerbitzariak kotxea hartu eta euren bizitzen

errutinatik ihesi doaz, frustrazio guztiak maletategian sartuta. Lerro hauek Hollywoodeko *Telma eta Louise* film ospetsuko sinopsia osatzen dute, baina lotura zuzena dute Ainhoa Artetxe eta Graciela Donizen asmoarekin. Antzezlanaren hainbatetan jarri da AEBetako hiri horretara begira, bigarrenengo bati erreferentzia zuzena eginda: *Night on Earth*. Winona Rider aktoreak taxista papera du film honetan eta Gena Rowlandsek antzeztan duen zuzendari ospetsu bat jasoko du bere autoan. Bi film horiek antzezlanaren pertsonaien zein giroaren parte dira: titularrean, bi protagonisten izaeretan, gertaeretan eta estiloan. Bete-batean sartu dira distantzia handira dagoen mundu horretan. Erabakia arriskatua da, ikuslea obran sartzea galarazi dezakeena. Ni, behintzat, nahiko eszeptika hurbildu naiz antzokira, izenburuak hasteko, ez bainau limurtu, Hollywooodera eraman nauelako, hain zuzen ere. Luxuzko egongela bat eta Goya jaso duen aktoreak hausten dute hasierako isiltasuna, zein baino zein topikoagoak iruditu zaizkidanak. Baina, sor-

---

## ANTZEZLANA: WINONA & GRACE

**KONPAINIA:** Khea Ziater.

**NOIZ:** Urriaren 29an.

**NON:** Pasai Donibaneko Juanba Berasategi aretoan.

---

tzaileek ez dute inongo momentuan asmo hori ezkutatu, esplotatu baizik eta euren eremura ekarri.

Era berean, antzerkia eta zinemaren lengoaiak nahastu dituzte, eta bete-betean asmatu dute horrekin, edertu egin baitu eszenaratzea eta zentzua eman dramari. Pantaila eta bideoen erabilerak beste mundu bat irudikatu dute eta zuzenean ikusten ari ginenari gehitu dio. Eta hemen hasiko da tipula biluzten: bi aktore aktoreena egiten, zeintzuek ez dakiten aktore izateak on egiten dien. Zinema eta antzerkia. Barnean daramatzaten kanpo erreferentziak. Pantailaren distantziatik intimitatea erakusten duten asmoak eta barne hausnarketa sakonak. Isilpean dauden sortzaileen zein pertsonaien asmoak. Literalki entzerratuta dauden bi pertsona, metaforikoki ere badaudenak. Elkar ezagutzen ez duten bi adiskide. Aktore famatuen iruditeria mitikoa, era berean kritikatu egiten dutena. Eta azpimundu gehiago sortzeko, drogaren atmosfera. Finean, fikzioz moztutako errealitatea errealitatearen barruan. ●



# Hitz gezidunak

Gaia: \* Nafarroa Oinez 2023

SARRERA OZTOPATU * HERRIA	ZOLDA EZKAI	OINAREN ATZEALDE RONA	ZEREGINA ARRESKE	ITXURA, TAXU ERRRESISTEN- TZIA	SOLDATA EMAKUMEZKO ZERBITZARI	KANTOIA, BAZTERRA EDARITEGIA, TXIRIBOGA	
GARBITZE, XAHUTZE HAIZEZKO ZURRUMBI- LOAK				KODAINAK PLURALAREN MARKA	LANDARE BERRI KAKA		
HAINBAT GAUZAREN IREKIDURA	HERRI HIZKERAN, BADA * LEOA					NOREN ATZIZKIA BEGI-OKER	
		URDEZAIN				BIZKAIKO BADIA ÓTOITZ BUKAERAN	
GOGOAK EMAN INTERJE- KZIOA							BENETAN
	ROENTGEN HARI, BIDE					ETA ABAR (LABURDU- RA) EZEN	
ESLOVAKIAKO UDALERRIA ITSASO ZABALARI DAGOKIONA		PARE BAT GAUZA, KAPAZ	LURRA, ZORUA AHO GAIXOTASUN	BIGARREN BOKALA	BOKAL BIRIBILA ALEAK HAUSTU	ENERGIA ZORO, ERGEL	
				ZIKOITZ, ZIZTRIN BIKI I BARIK			
ZEZEN ZIKIRATUA IZENIK GABEKO OBRAK			ILARGIAREN BEHERALDIA METROA				
					... GAINETIK, OROREN GAINEAN		

## Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

						9		
		7	8	2		5	4	1
1		5	6	3	7	2	8	
6	4	3	8	7				5
			5	1	6			
	7					8	3	
7					5	4	8	3
		6	4					
4	8		3	2		6	7	

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Zutik.
2. Hitzak, berbak.
3. Emakume gaztea.
4. Zapataren atal.
5. Gaia, materiala.


## EBAZPENAK

7	9	6	2	3	1	8	4	5
2	1	8	7	4	9	6	3	5
7	2	1	6	5	4	8	3	9
6	9	8	3	6	4	7	2	1
1	7	5	2	4	6	9	3	8
2	8	3	9	5	1	6	7	4
9	4	6	3	8	7	2	1	5
6	3	7	8	2	9	5	4	1
8	5	2	7	1	4	3	9	6

- 5XS:**
- EKALIA
  - TAKOI
  - NESKA
  - ELEAK
  - TENTE

Z	O	R	O	K	A	V	O	I	M	O	I	N	O	N	V
A	H	E	R	A	B	E	L	I	L	B	E	I	D	I	A
R	E	R	A	Z	E	K	E	N	I	K	O	I	G	I	P
E	O	E	E	Z	B	B	D	I	S						
B	A	V	E				R								E
															T
															O
															H
															V
															B
															A
															R
															I
															Z
															R
															I
															X
															V
															H
															U
															P
															E
															L
															I

# Kaitin Allende Zaldunbide

UMOREGILEA



## BARREA EUSKARAZ, (HEL)MUGA

“Lehen *Barre Librea* saioa zegoen euskarazko bakarriketariekin telebistan. Euskarak oso toki gutxi dauka gaur egun telebistan, sukaldaritzak bai. Barre egiteko gaztelaraz sekulako inbertsioak egiten dira, euskaraz ez. Ni ez naiz honetatik bizi, baina nola bizi daiteke? Emakumezko umoregile edo sortzailea bada, martxoan eta azaroan egingo du lan, bizitzeko lain ateratzeko. Oso profesional onak eta prestakuntzadunak daude, baina plazarik eta aitortzarik ez dute. *Barre Librea* oso programa ona zen, oso zaila da barre eragitea, gainera. Gerraz, pornoaz, gizarte arazoez hitz egin beharra dago, baina dena ezin da hori izan. Kulturari eskaintzen zaiona albistegietan ere oso azalekoa eta motza da”.

“Umorea ura edatea bezalako da: egunero hartu behar dugu, momentu batean bada ere”

Kaitin Allenderi (1972, Arrasate) bizitzak eman dio bakarriketarako gaia, eta bakarriketak bizitza. Berriki aurkeztu du *Zahartzaro hiperaktiboa* lana. Mitoak deseraiki eta tabuak eszenaratu nahi izan ditu, konplexurik gabe: “Ez dugu barre sano egingo, norberaz barre egiten ikasten ez badugu”, dio. Irrati esataria da lanbidez, kazetaria. Bizitzako eremu guztietan du, ordea, antena piztuta. Adi entzuten dio datorkion seinale orori.

✂ IZAR MENDIGUREN COSGAYA    📺 PELLO MAUDO HERRERO

### Zahartzaroari umoretik heldu diozu zure azken bakarriketan. Errebeldiarako ez da inoiz berandu?

Zahartzarora iritsi behar da, lehen-bizi. Aitonak eta amonak kokoteraino daude denaz jada, bortz inporta zaie guztia. Ni ere bidean nago, klimaterioak ere horretan laguntzen du.

### Klimaterioaren kilimek eta sofokoek bultzatu zaituzte azken ikuskizuna sortzera?

Orain arteko monologoek nire bizitza kontatu dute. Ez naiz zahartzarora iritsi, baina banuen gogo gure aitite eta amonei barrea eragiteko. Arrasateko Nagusien Kontseilutik deitu ninduten, eurentzat bakarriketa bat egitea nahi zutelako. Oso ondo pasa genuen. Nire hirugarren bakarriketa izan da: *Artistak eta kazetariak 1.0* izan zen lehena. Bigarrenean –*Guraso txinpartak* izenekoan– gurasotasunari heldu nion. *Klimaterioa* ikuskizunean bertsolariekin aritzen naiz. Klimaxetik klimateriorako abanikoaz hitz egiten dugu, eta sekulako arrakasta dauka,

tabuez hitz egiten delako. Nola gestionatzen da gure hormona saltsa? Pentsa, behin emagin batek esan zigun berak menopausia hitzaldietan gure pasarteak erabiltzen dituela. Andropausia ez denez aipatzen, ez da existitzen; baina menopausia bai. *Klimaterioaren* ostean, jende asko hurbildu izan zaigu eskerrak ematen.

### Noiz eta zergatik hasi zinen bakarriketetan?

2019an hasi nintzen, lagunek animatuta. Kuadrillakoek bakarriketak egin behar nituela esan zidaten, ‘eta zergatik ez zoaz zu Gorbeia?’ erantzun nien nik barrezka. Segur-tasun falta handiak izaten ditut, baina animatu egin nintzen ikastera. Ez nuen asko pentsatu, horregatik hasi nintzen. Eszenatokira igotzean biluztu egiten zara, baina bakarriketekin gustura nabil orain.

**Zahartzaro hiperaktiboa deitu duzu azken monologoa. Zure bakarriketen atzean hainbat bizi etapa –eta jende askoren bizitza– daude.**



"Zahartzaroan denetik dago. Jubilazioa ez da inoiz amestu bezalakoa, ez duzu denborarik nahi duzun guztia egiteko: alarma jarri behar duzu bilobak eskolara eramateko. Erretiratuak deitzen diegu, gainera. Erretiratu, balio ez duten gauzak egiten dira".

Bai. Bizitza hori da. Oraingo biran, esaterako, nire amaren gurgildun aulkia erabiltzen dut. Ahalduntzeko oso fase inportantea izan da *Kilimaterioa* niretzat. Inork ez digu kontatu hilekoa galtzean zer gertatzen den. Sexu heziketan eta zaintza sisteman mitoak deseraiki behar dira.

Zahartzaroan denetik dago. Askok in-formatu naiz lana osatzeko; eta denetarik ikusten duzu. Jubilazioa ez da inoiz amestu bezalakoa, ez duzu denborarik nahi duzun guztia egiteko: alarma jarri behar duzu bilobak eskolara eramateko. Erretiratuak deitzen diegu, gainera. Erretiratu, balio ez duten gauzak egiten dira.

#### **Txikitan asko egiten dugu barre. Nagusitu ahala zailagoa al da?**

Konplexu asko daude adinean gora joanda. Barre sano eta ondo egin behar da.

#### **Zergatik aukeratu duzu umorea tabuak lantzeko?**

Umorearen genea amak utzi dit, horregatik darabilt. Orain, nire amak ezin du hitz egin, baina hala ere, umoretsu dabil. Niretzat umorea ura edatea bezalakoa da: egunero hartu behar dugu momentu txiki batean bada ere, oso terapeuti-

koa da. Denborarekin ohartu naiz barre eragitea zaila dela, baina sekulako zoriontasuna jasotzen da jendea barrezka ikustean.

#### **Norberari barre egitea non sartzen da ekuazio horretan?**

Ez dugu barre sano egingo norberaz barre egiten ikasten ez badugu. Komedia, tragedia gehi denbora da. Sasoi batean tragedia gisa bizitakoa, denbora bat pasata edo distantzia hartuta, barre egiteko kapaz izan zaitezke.

#### **Emozioak ataskatuta izanagatik, bada lehorra den jendea.**

Emozioak atera behar dira: zein kalte egingo dizu negar egiteak ba? Niretzat izugarriak dira emozioak, momentuaren arabera ez delako erraza izaten kudeatzea.

#### **Barrea askatzailea da. Umorea ere bai?**

Bai, oso. Nagusien egoitzetan ipuinak kontatzea eskatzen dute, denbora tarte bat pasatzea behar dugu. Whatsappetik txisteak bidaltzen dira. Berri txarretarako baditugu *Teleberri* eta *Gaur egun* modukoak. Umorea dosiak behar ditugu.

Gainera, beti egiten dugu barre bestearen kalteaz. Askok esan daitezke umoretik.

#### **Mitoak deseraiki nahi izan dituzu.**

Bai, zaintzarekikoak batez ere. Aitite eta amamak noiz joaten dira euren masajeak hartzera? Giltzurruneko mina gehiago eraman ezin dutenean. Zahartzaro aktiboa saldu digute, baina hiperaktibo daude biloben zaintzagatik. Ezin dute euren agenda antolatu, eta ez daude beti oporretan. Duintasunez eta osasunez iristea lortu dutenek bizitza gozatzeko domina merezi dute, eta 'Beti on' medaila ematen diegu. Gainontzekoak zaintzeko gure burua zaindu behar dugu lehenbizi, edozein adinetan.

#### **Bakardadea ere landu duzu.**

Arazo potoloa dago bakardadearekin. Zahartzaroan lagun kuadrillak oso itxiak dira, oso zaila da; eta horretaz ez da hitz egiten. Gure esku ere badago bizitza ero-soago egitea. Arrasaten estreinatu nuen obra eta denek zoriondu ninduten. Barrez lehertu ziren.

#### **Aurrera begira, baduzu beste proiekturik buruan?**

Kotxe berria erostea, plaza bat lortzea... ●

# Aspaldiko lagunak, adostasun zabalak, biharamuneko titularrak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**H**ainbeste denbora pasea zuten elkar ikusi gabe, presentazioak egin behar izan zirela: “Euskalgintza, hau kalea da; kalea, hau euskalgintza”. Gero betikoa, lan hori hartu zuenari esplikazioak: bueno, berez ezagutzen zuela batak bestea eta besteak bata, baina assspaldi inon kointziditu gabe, kaleak dio azkenaldian ibili direla feministak, komunistak, internazionalistak, negazionistak... *Euskalgistak*, ordea, ahaztu samarrak zeuzkala dagoeneko. “Igual *Egunkaria* itxi zutenean tokatu ginen azkenekoz?”. Atzo izan zela ematen du, bizitza ze abailan doan, e? Eta erdigalderan kaleak: “Umeak ere handituta izango dituzu honezker”. Eta euskalgintzak erantzun: “Ui, bai, bai, nagusia hasi da dagoeneko txostenak idazten, laster joango da unibertsitatera. Hurrengo talde-dinamikan post-it guztiak berak itsatsiko dizkigu, kar, kar”.

Jende pila ederra juntatu zen behintzat Bilbon. Erraz esaten baita, 70.000 lagun. Manifa hotz samarra, baina bueno, bada giharririk. Edo behintzat, bada kezkarik, hori ezingo du inork ukatu pasa den larunbatetik aurrera: *lehena-go hi baitinçan arduretan azquena, oray aldiz içaneniz orotaco lehena* txo, zeren martxa honetan jarraitzen badugu, gertakari flipanteen Guinness errekorren bat ere hautsi behar da hemen. Ez dute ba EAJk eta EH Bilduk beren lehia kaindarran su-eten humanitario bat dekretatu Eusko Legebiltzarrean elkarrekin manifestazioa babesteko?

Besteak beste *Minima Maltzaga* horrek lortu du euskararen aurkako erabaki judizialen gaia “agendan” sartzea, komunikazio politikoko jerga pedantean esaten den moduan. Bat batean *prince*



*eta iaun handieci oroc haren galdia* eta –bigarren gertakari flipantea– Vocento taldeko egunkarien bitartez jaso dute esplikazioa, azalean etorri baita manifestazioaren berria. Madrilgo Ferraz kalean gobernua osatzeko puzzlegintzan dabilen baten batek ondo irakurriko zuen mezua, espero: hauek ez zebiltzak katalanki, behar denerako bat egiten ditek; eman toke bat judikaturan edo egin zerbait hizkuntza-politikaren kompetentziekin asuntua desmadratu baino lehen.

Kanpora begira, beraz, arrakasta totala Bilbokoa. Manifadvisor.com-en bost izar eta iruzkinetan HEUSCARARI EMAN DIO BEHAR DUYEN THORNUYA euforikoak irakurriko lirateke, norbaitek, ai, horrelako aplikazio bat behingoz abian jarriko balu –behar dugu ze, udazken honetan ez dakit manifez aparte beste ezer egiteko denborarik geratuko zaigun; eta nonbait baloratu beharko ditugun kontu hauek, behar objektiboa da–.

Barrura begira jartzean apaltzen dira animoak, erortzen dira bekainak, garrasten da eztarria, biharamunean egunkari abertzaleek ere eman baitute azalera notizia, *70.000 personas se plantan ez-dakit-zer eta rotundo apoyo* badaikit-zerka. Gaia dena izan arren, prentsiio elebidunekin sortutako periodikoak izan arren, azaletako titularrak erdaraz. Kontuak ez du eztabaidarik ere eragiten jada, kasik eskerrak eman beharko ditugu notizia gaztelaniaz atera dutelako, inporta duten beste gauza guztiak ateratzen diren bezala, alegia. Agian hizkuntzaren malkarrean –malkarrean diot, bai; “alorrean” optimistegia litzateke–, ezagutzen dugun abertzaletasunak ez du gehiagorako ematen. “Zer uste dute ba epaile eta legelari espainol horiek”, harro esateko balio du; eta segidan, harroago oraindik, eransteke: “beraiek ez, guk erabakiko dugu hemen euskara nola ez den erabiliko”. ●

# MICE

MIREN NARBAIZA

AZAROAK 18 /  
UDAZKENEKO UZTA

AGERREA ETXALDEAN  
ARBONA, LAPURDI

# BASERRIKO UZTA

izena emateko:



**BASERRIARI BISITA + HAMAIKETAKOA + KONTZERTUA + BAZKARIA**

SARRERA: 30€ // 6-12 URTE: 15€ // 0-6 URTE: DOAN

Izen-emateak eta egitarau osoa: [www.ehkolektiboa.eus](http://www.ehkolektiboa.eus)

# Arabako Errioxa

naiz

Eta nire  
etiketan  
esanda dago  
dena.

Nire jatorriaz  
hitz egiten duelako,  
kalitate berdingabeaz,  
esperientziatz, berrikuntzaz.

RIOJA  
DENOMINACIÓN DE ORIGEN CALIFICADA  
RIOJA ALAVESA



← Saltoki eta  
jatetxeetan arretaz  
begiratu etiketari;  
Arabako Errioxa  
jarri behar du.

*Euskadi, auzolana*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**hazi**